


Joxemari Iriondo

Basarri

Zarauzko berriak

1931-1936



Joxemari Iriondo

Basarri
Zarauzko berriak
1931-1936

Auspoa Liburutegia
327

BASARRI (1913-1999)

Basarri : Zarauzko berriak : 1931-1936 / [biltzailea], Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2013.

156 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 327)

Aurkibidea

LG SS 1716-2013. - ISBN 978-84-7907-704-4

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deporte. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-43"19"

Argazkiak: Zarauzko udal artxiboa, Gure Gipuzkoa (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta J.M. Iriondoren bilduma.

Idazketa, zuzenketa, edizio arduraduna: J.M. Iriondo.

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

600 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-704-4

Legezko Gordailua: SS-1716-2013

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Joxemari Iriondo

Basarri

Zarauzko berriak

1931-1936



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Donostia/San Sebastián, 2013

Hitzaurrea

Bete berriak dira ehun urte –2013ko azaroaren 27an– Inazio Eizmendi Manterola *Basarri* bertsolaria, idazlea eta esataria jaio zela, Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian. Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, laurogeita sei urte betetzear zegoela.

Haren jaiotzako mendeurrenean, Auspoak omen eta ohore egin nahi izan dio bertsolaritza eta euskararen alde hainbat lan egin zuenari, idatzizko eta ahozko euskararen sailean merezimendu osoa baitu, gure ustez.

Merezimendu osoa aitortu zion Euskaltzaindiak ere, Euskaltzain urgazle (1961-8-25) eta Ohorezko euskaltzain (1984-XI-30) izendatuz. Euskerazaintzak, berriz, Euskaltzain oso izendatu zuen, 1992an.

Zarauzko errezildar-zarauztarra

Gurasoek Azpeitira bidali eta zerbait ikasten hasi zenerako, Zarautza etortzea erabaki zuen Eizmendi Manterola familiak, Granada erreka zoko ospela utzita. Basarrik ez zuen ukatu sekula bere nongotasunik:

Gurasoak ni tokiz aldatu ninduten gazte nintzala,
baña nunaitan nabarmentzen da arbol zarraren itzala.
Erniopean zaude, Errezil, zeru txiki bat bezela;
arrokeri bat badet nerekin: ortxe jaioa naizela.

Errezilen, 1954-05-17

Baina Zarauzko errezildar-zarauztar sentitu zen beti: “Zer nai dezu esatea?, –aitortu zidan behin batean–. Zazpi urte nituan ez-kero emen bizi naiz, eta ni zarauztarra sentitu izan naiz bizi guztian”.

Irrati-gizona

Inongo ikastetxetan trebatu gabe, baina Beamako apaiz jaunari

hautzaroan entzundako hitzak eta ikusitako imintzioak eginez, edo, beharbada, Zarauzko frantziskotarretan entzundakoak go-goan, eleketari onaren berezko sena landu zuen Basarrik. Baze-kien hitza nola erabili, ahotsaren gorabeherak egoki modulatu, isilaldiak egin eta bere jarduna dramatizatu.

Garai hartako bere idazlanetan nabarmentzen denez, maisua zen bere guda-lagunei sutsu hitz egiten; baita edozein bazkalon-do edo jaialdiren ondoren neurri librean hitzak errimatuz mintzatz-zen hasten zenean ere. Bazuen adurra entzulea ahoa bete hartz edukitzeko, erabat txundituta.

Zubimendi eta Luzear jaunak hasi zirenean Donostiako *Unión Radio* irrastian astean ordubeteko irratsaioa euskaraz egiten, 1932an, behin baino gehiagotan eraman zuten irrattira Basarri gaztea Zarauzko taldearekin batera, bertsolaritzari buruz hitz egin edo bertso batzuk kanta zitzaiz, irratsaioa osabete eta gozatzeko.

Geroago, 1949ko udazkenean hasi zen Donostian talde bat irratsaioak euskaraz egiten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez. Eta urteak iraun zuen lan ark.

Eta 1957an, berriro hasi ziren Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* irrastian. Han bildu ziren Basarri bera, Maria Dolores Agirre, Manu Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaiteroak, Jose Mari Etxe-beste eta abar. Aldi hartako lehenengo saioa 1957ko irailaren 13an eman zuten, eta urteetan iraun zuen hark ere.

“Nere Bordatxotik” atalean kontakizun eta albisteak eman ohi zituen Basarrik, eta azkenean bertso bat edo bi kantatu, gai ba-koitzari bere moralina erantsiz.

Garai hartako Euskal Herriaren historia eta istorioak kon-tatu eta idazten ditu Basarrik, baina bere iritzia argi eta garbi erantsiz. Ez zen berria ematera mugatzen; ez zen kazetari hotz horietakoa.

Basarri bertsolaria

Baina Basarri benetan ezagun eta ospetsu, 1935eko “Bertsola-ri guduak” egin zuen. Ordurako urratuak zituen zenbait urrats.

Zestoako batzokian egin zuen lehenengo saioetako bat, hamazazpi-hemezortzi urte zituela, jaiegun batean lagunekin hara joanda. Mitin baten ondoren, bertsolari bat hantxe ari zen non-bait bakar-bakarrik, eta harekin egin zuen saio txikia, "nere lagunak artaraxe beartuta". Erauskin Errotaria zen bertsolari hura, Ordizian bizi zena.

Bertsolari zaharretan, miresmen berezia zion Gaztelu Gorriari, Aginagan egindako berriketaldi baten ondoren kontatzen duenez:

Aginagan giñan. Antxe erromerian gertatuta edo, nere lagun batzukin ostatu batera sartu giñan. Gaztelu bertsotan ari zan, baña bakarrik. Nere lagunak asi zitzaizkidan puntarak botiaz, eta azkenean jarri ninduten berarekin. Amazazpi urte izango nituan artean.

Ene, zein laguntzalle Bautista! Seme bat bezela artu ninduan. Nik ere, alatsu jarri eta oraintxe aspertzera egin genduanean, galdera batzuk egiten asi zitzaidan. Baña ez kantuz, itzez baizik.

Argia, 1935-II-20

Hamazazpi-hemezortzi urtetan hasi eta 1970eko hamarraldia-aren azken aldera arte, herriz herri ibili zen, herrietako festa eta jaialdietan, plaza eta aretoetan, eta irratian. Txirritarkin kantatu zuen inoiz; Txapel eta Zepairekin, askotan. Baita Mitxelena, Xalbador, Mattin, Lasarte, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki, Azpillaga, Lopategi eta garai hartako bertsolari guztiekin ere, 1950-60-70eko hamarraldietan.

Bestalde, 1980an Zarautzen egindako elkarrizketa batean kontatu zigun: "Bazan or Gernika alde ortan *Urretxindorra* esaten zioten bertsolari xuxen bat, Kepa Enbeita izenez. Iru-lau aldiz kantatu nuen arekin ere, Euzko Alderdi Jeltzalearen mitiñetan -eta. Ikaragarri gustatzen zitzaidan aren bertsokera".

Baina Uztapide izan zuen bere bertso-lagunik parekoena, batez ere trabajadoreetatik etorri eta 1944-45ean hasi zen ezkerero. Ondo baino hobeto konpontzen ziren biak, eta batek bestea eder-tu eta ontzen zuen plazan.

Gerra luzea

Orduan ere, tirabira nagusi. Borroka bizia zegoen Madrileko agintariekin, edo hangoek Euskal Herrian zituzten ordezkariekin; borroka bizia euskaltzale eta euskaltzale ez zirenen artean, hauteskunde-garaietan bereziki, sindikatu eta elkarteak (Baserritarren Alkartea, Euzko Langilleak, Euskal Idazle batza ...) antolatzekoan. Lanik eza, bizimoduaren garestitzea, eguraldiaren eragina base-riko lanetan, kosta-herrietako udatiarren gorakoa eta Zarautza uda pasa etortzen ziren seño-ri- toen laineza eta haundikeria, gure nekazari eta arrantzaleen ezin bizia, gazteria...

Basarri inork ez zuen behartzen bere kronika eta idazlanak egunero euskaraz eta erdaraz idaztera, azkenengo urteetan behartzen zuten bezala. Nahi zuen gaia aukeratu eta idazteko astia ematen zioten, egunero idatzi beharrak sortzen duen itomenik gabe, lasai samar idatziz bere barrenean zeraman sugarra azaleratuz, nahiz eta guda-oinetan tiroka zebilela lasai idaztea zaila izango zen.

Bertsolari, kazetari, idazle, irratiko eleketari, ertzain eta gudara izan zen, 1937ko uda gaiztoan, Bilbo diktadoretzarraren atzaparretan erori eta iparraldera ihes egin zuen arte, Santandereen ontzia hartuta.

Handik aurrera, Landetako pinudietan atera zuen bizimodua 1937 – 1940 artean, basomutil. Baina sarri hurbiltzen zen muga aldera, inguru- etako giroa ikusi nahita edo. Senideak, lagunak, denak eske ari omen zitzaizkion herrira itzul zedin behingoz. "Bai, batez ere gure ama gaixoa etxera etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan". Horixe uste ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak ere. Baina...

Oraintxen dala sei illabete etorri giñan Prantzitik,
guraso maite biotz biguñak deika baigiñun etxetik.
Gure kabiak urre genitun guk Endaiako zubitik...
Irunen zegon sare zabalak artu ginduzen erditik!

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan, txerrien gisan, etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

Bejar-Salamanca, 1941eko martxoaren 13an

Bejar-Salamanca, Madrid-Chamartin de la Rosa, Oiartzungo
Atxulei, Seganga eta Al-Diedirren (Afrika) egin zituen trabajado-
reetako urte gogorak, harik eta 1943ko ekainaren azken aldera
San Pelaio festarako etxera itzuli zen arte.

Bijoaz beingoz laino zakarrok, ta betor zeru argia!
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua! Mintza zaitte gaurkoan.
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak, dan danak zuretzat zeuden.
Ainbat zigor artuta, eztakit bizirik nola zauden!

Berriz ere lehenera

Itzuli zen herrira, eta bertsotan hasi herriz herri. Baina, afizioz
eta ofizioz, berriz ere kazetari-lanetan hasi zen, 1946ko udazke-
nean, Donostiako *La Voz de España* egunkarian, Zarauzko be-
rriemaile F. Juaristi *Pipe-kalek* “Zeozer egin bearko uke” eskatu
omen zion-eta.

Bertsolari zaharren apamen eta pasadizoak idazten zituen
aldizka. Esate baterako, 1946ko abenduaren 19an, “Santo To-
masko feria txorixua ta ogia” zela-eta, gazteleraz eta euskaraz
egin zuen idazlanak harrera ona izan zuen, itxura denez. Eta har-
tan jarraitu zuen.

Urte askoan idatzi zuen *La Voz de España*, *El Diario Vasco*,
Zeruko Argia, *Goiz-Argi*, *Arantzazu* eta herrietako aldizkarietan.
Haren azkenengo idatzia, oker ez bagaude, 1994ko azaroaren

bian bidali zuen *El Diario Vasco*-ra. Urteen zamak eta osasunik ezak dena uztera behartu zuten.

Lehenago, 1980ko hamarraldian, Euskadi Irratian ere izan zuen bere txokotxoa aldi batean.

Azken urteetako bizimoduaren laburpena ederki egin zuen, 1962-XII-30ean, Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa nagusiko hartan, Alfonso Irigoyenek, “hiru bertsotan kontatu behar dezu zure bizitza” agindu zionean:

Goguan artua det, ai, zer esan duan.
Lan pixkat egiten det periodikuan,
berriketaldi batzuk gero radiuan.
Familiiko goxoan andrian onduan,
antxen bizitzen nazu al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan ibili biarrak,
an azaltzen ditugu dauzkagun indarrak.
Gozatzen dira gazte eta berdin zarrak.
Eman dizkigulako ain doai ederrak,
Jaungoiko altsua, nik biotzez eskerrak.

Irugarrena ere kantako det garaiz,
tristurarikan gabe txit arpegi alaiz.
Guretzat inun ez da biar ainbeste eiz,
milla duroren jabe izan ez arren inoiz,
daukadan pixkarekin gustora bizi naiz

Auspoa, 22: 147 or.

Basarri kazetaria

Basarri, lehen esan bezala, 1931n hasi zen idazten egunkari eta astekarietan, edo hitz egiten irrastian. Izan ere, bertsolari ez ezik, kazetari ere bazen; eta hirurogeita lau-bost urte haundiz idatzi zuen, beti ere bere estiloan.

Garai hartako irrati-grabaziorik ez dugu, baina Basarrik ar-

gitara emandako idazlan eta herriko kronika asko (bertsoz nahiz prosan) biltzen ahalegin berezia egin dugu urteetan zehar, behin batean Antonio Zavalari emandako hitza bete nahita. *Euzkadi*, *El Día*, *Argia*, *Eguna*, *Tierra Vasca* eta *Euzko Deya* goitik behera azterkatu eta horietan argitara emandako idazlan asko jaso dugu, aldi bateko gure historiaren lekuko zuzenak direla-eta.

Liburu hau

Hari-mataza horrixek tiraka osatu dugu **BASARRI – ZARAUZKO BERRIAK – 1931–1936** bilduma (Auspoa 327), gure irakurleek gustura hartuko duten ustez. Izenburuak dioen bezalaxe, hori da Basarriren oraingo bilduma: 1931ko azaroaren 11n hasi eta 1936ko maiatzera arte argitara eman zuen idazlan asko.

Aldi hartan kazetaritza-lana honelatsu banatu zuen, argitalpen ezberdinetan, beti ere “euskaldun fededun” sinesmen haundiko eta kazetari *freelancer* autonomo bezala, bere iritzia argi eta garbi azalduz.

Bilduma honetan jaso direnak, honela banatuta daude:

- *Euzkadi*. 1931-11-11n eman zituen lehenengo bertsoak (*Nere arrebatxubari*), eta egun berean “Errijetatik” sailean (Herrietako albisteak) Zarauzko kronika idatzi zuen; eta azkenengoa, 1936-05-21ean.
- *El Día*: 1931ko abenduaren 25ean idatzi zuen bere lehenengo herriko kronika “Euskal orria” sailean; eta egunkari honetako azkenengoa, 1934-02-15ean.

Edizioa

Auspoa honetan aurkituko dituzu aldaketa txikiren batzuk. Izan ere, Basarriren idazlan ber-berak ez baitaude beti berdin argitaratuak aipatutako egunkarietan.

- Orduko ohituren arabera, apostrofeak eta kakotxak azaltzen dira jatorrizko idatzietan. Kendu egin ditugu. Hala nola: *Eizmendi'tar* (Eizmenditar), *Ayerdi'tar* (Ayerditar), *Monzon'*

tar (Monzontar), *Agirre'tar* (Agirretar), *Alberdi'tar* (Alberdi-
tar), *Enbeita'tar Kepa'ren* (Enbeitar Keparen).

Zarautz'en, *Zarautz'tik*, *Zarautz'ko* (Zarautzen, Zarautzik,
Zarauzko), *Euzkadi'ko*, *Euzko Etxea'ko* (Euzkadiko, Euzko
Etxeako), eta abar, eta abar.

- S eta Z. Argitalpen bakoitzak bere irizpidearen arabera era-
biltzen zituen: *Euzko*, *eusko*, *euzkera*, *euskera*; *euzkal*, *eus-
kal*, *euzkel*, *euskel*; *arratzalde*, *arratsalde*; *atzegin*, *atsegin*
eta abar. Denak batu ditugu: *euskera*, *euskal*, *arratsalde*,
atsegin.

Alabaina, *Euzko*, *Euzkadi*, *auzkotar*, *euzkoak* bere horretan
errespetatu ditugu, gehienetan horrela agertzen baitira.

- *Antzeslari*, *antzezleri*, *antzestu*, *antzeztu*... *Atzetzleri*, *an-
tzeztu* utzi dugu guztietan. Eta *antzerki jaia*, *antzerki-jaia*
delakoetan *antzerki-jaia* jarri dugu. Eta *Aberri eguna*, *Agerr-
-eguna* delakoan, *Aberri-eguna*.
- Y grekoa. Denetik dago jatorrizkoetan: *geiyago*, *geyago*, *ge-
yen*, *geiyenera*, *geyenera*, *geienera*, *goyen*, *goyeneko*, *egiya*,
egia, *erriya*, *erria*, *Aberriya*, *Aberria*, *aberkoya*, *aberkoi*,
etsaiya, *anaya*, *aiyek*, *oyek*, *oriyek*, *oryek*, *oiyek*, *oyetzaz*,
garaiyan, *garayan*, *Zumaya*, *Zumaia*, *Aya*, *Aia*, *byotzetik*,
biyotzetik, *biotzetik*, *piyo*, *deyogun*, *zayon*... Horrelakoetan
y kendu eta *i* ipini dugu, zenbait abizen eta izenetan izan
ezik: *Ayeditar*, *Iruretagoyenatar*, *Zelaya*, *Goya*, *Zendoya*,
Euzko Deya...
- Era berean, lehenean utzi dira bizkaierazko asko, hala nola:
neban, *errija*, *urten*, *lanean diardabe*, *ondiño*, *lez*, *damuba-
gaz*, *maitasunagaz*....
- Era batera nahiz bestera erabili zuen *ñ*, hitzaren azkenean:
egिñ, *eziñ*, *edozeiñ*, *alegiñ*, *zanakiñ*, *laiñ*, *dediñ*, *aiñ*, *oraiñ*,
ikurriñ, *eragiñ*, *berdiñ*, *gaiñ*, *apaiñ*... Horren ordeztu, *n* ipini
dugu. Baina *egिña*, *alegiña*, *aña*, *ikurriña*, *eragiña*, *gaña*,
apaña eta abar.

Noiz nai, noiz-nai, nun nai, nun-nai, nora nai, nora-nai, gaxo aldi, jai aldi, udal-etxe, udal etxe, pelota leku, diamun, biamun, izen abizenak eta holakoetan, denak berdindu, eta noiznai, nunai, noranai, gaxoaldi, jaialdi, udaletxe, pelotaleku, biamun, izen-abizenak jarri dugu.

- *Askorek eta askok kasuetan, beti askok jarri dugu.*
- *Aldunak alduna, altzan, altzuan eta holakoetan al dunak al duna, al zan, al zuan aldatu ditugu.*
- *Iñoiz edo behin azaltzen dira Oñengo eta oñengoan (Errezilen, oañenguan oraintxe ere), orain hurrengo edo orain hurrengoan esateko. Bere horretan utzi ditugu, ohartuko zarenez.*

Hauek eta beste aldaketa txikiren bat ere badago, irakurle. Baina, lehen esan bezala, irakurle zintzoari bidea erraztu eta Basarriren onerako izango dela pentsatuta egin da dena.

Eta azkenik

Aholku bat nahi baduzu, irakur ezazu, **Zarauzko berriak** kronika bakoitza patxada ederrean, eta esango diguzu *Auspoa*-ren orrietara ekartzea merezi zuen ala ez bilduma honek Basarriren jaiotzako mendeurrenean.

Joxemari Iriondo
2013ko abendua

Basarri
Zarauzko berriak
1931-1936

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Gudari (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1931-11-11	23
Antzezlarriak (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1931-11-19	25
Iragarrita zeguan bezela (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1931-11-29	27
Euskera (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1931-12-10	29
Luzear jaunari (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1931-12-13.....	31
Nere bigarren idazkia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1931-12-25	33
Anaitasuna erakutsi (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1931-12-30.....	36
Artzai ona (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-01-06.....	37
Abertzaletasuna (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> 1932-01-15	39
Bolara (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-01-23	41
Dantza lotua (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-01-27	43
Anaiak, agur (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> 1932-02-06	45
Agate Deuna (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-02-07	47
Itzaldi aberkoia (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-02-14	49
Antzezlarriak (<i>Errijetatik</i>) <i>Euzkadi</i> , 1932-02-20	51
Aizkora jokua (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-02-28.....	52
Aurreko egunetan (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-03-18.....	54
Itzaldi aberkoia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-03-25.....	56
Asteroko berriak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-03-30.....	58
Asteroko berriak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-04-15.....	61
Asteroko berriak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-04-22.....	63
Zarauzko Emakume Abertzale Batza (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> 1932-05-03	65
Euskal izena (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-06-01.....	67
Igaro dan igandez (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-06-12.....	69
Erriko pestak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-06-24	70
Deun Pelagi (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-07-08.....	73
Lanik eza (<i>Euskal Orria</i>) <i>El Día</i> , 1932-07-15.....	75
Arpidea (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-07-17	76
Joan dan igandeko berriak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-07-21.	77

Iñaki Deuna (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-08-06	78
Iñaki deunaren eguna (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-08-07	80
Emengo Euzko Gaztediak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-08-17..	82
Naste Borraste (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-08-19	83
Estropadak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-08-25	85
Berriro pestetan (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-09-07	88
Utsaren urrengo (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-09-24	90
Itzaldi aberkoiak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-09-30 /	
Itzaldi aberkoiak (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-10-01	91
Idazleak, entzun! (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-11-12	93
Igaro dan igandea ere (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-11-17	96
Azkizuko jaia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-11-22	98
Aurrez aditzera (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-12-01	100
Euzko Langilleak (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1932-12-14	102
Langilleak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-12-17	104
Euskal izena (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1932-12-25	106
Euskal izena. <i>Euzkadi</i> (<i>Errijetatik</i>), 1933-02-09 /	
(<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-02-10	108
Euskal izena (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1933-03-11	111
Antzerkia (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1933-03-19	113
Espetxeratuia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-05-15	115
Eskerrak (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1933-05-24	116
Ayerditar Mikel (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-06-09	118
Pelota jokoa (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-06-22	120
Ugolde negargarriak (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-07-02	122
Sukarrietara (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-07-08	125
Itzaldia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-07-18	127
Ikusgarria dago (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-08-19	129
Sarritan entzun deguna (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-08-27	131
Euskal pesta (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-09-01	133
Irujo-Leizaolaren itzaldia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-09-08 ...	134
Euskal-pesta (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-09-16 /	
(<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1933-09-19	136
Itzaldi aberkoia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-10-13	138

Euzko Araudia (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-10-22/ <i>Euzkadi (Errijetatik)</i> 1933-10-24	140
“Amaya” (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-10-28	142
Maizterrak, entzun (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1933-11-26	144
Erriko berririk ez euskeraz (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1934-01-23.	146
Antzerki-jaiia (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1934-02-03	147
Ona berriro ere (<i>Euskal Orria</i>). <i>El Día</i> , 1934-02-15.....	148
Iñauteriak (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1934-02-17	149
Antzerki-jaiia (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1934-02-25	151
Etzeudek lo (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1935-03-27	153
“Gibel Aundi” ta “Ama” Zarautzen (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1935-03-28	154
Pagotako eguna (<i>Errijetatik</i>). <i>Euzkadi</i> , 1936-05-21.....	155

Anekua

este aldian baten, iturrian izen onaren berriak, berak izandak-berriak biden, Eberriko Katariere gaxuagaz egin eban loko Josepako oto-otuzen bihurtatu er-berriak gaxuagaz egin eban loko. Josepako oto-otuzen bihurtatu er-berriak gaxuagaz egin eban loko. Josepako oto-otuzen bihurtatu er-berriak gaxuagaz egin eban loko.

Mitxelela Andrea utsegozondo bateko mila lotera ageratu zuen.

Ena irakurle: Fiji, Tonga eta Eua ugarr-berriak, kolonko amaren etxean dagoen. Ozeaniko sordale-ordaleratzen. Estzen or-berriak Bialako ipuintzo bat, goikoaen an-berriak eta daunetuz.

MARAZKILOA ETA AZERIA

Marazkiloa errotatu eginen. Gernika's Marazkiloa ezin izan den eguean, eta azerit ezezin izan ezin izan den eguean, eta azerit ezezin izan ezin izan den eguean, eta azerit ezezin izan ezin izan den eguean.

Ena utsean, balio bere, burtera or-ma-kontran izan da. balidotea.

"Enea utsean, balio bere, burtera or-ma-kontran izan da. balidotea."

GAROTAR BERNARTE M.

Atsalgaiak: "Mitxelela", mariposa; "amamoko", cigüela; "marazkilo", ca-rapel.

Udaberrija, itxaropena

Udaberrija, itxaropena

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Aprka'ko gora-berak

Aspaldi ometako iparringietan, bates-be, France'kotan, ardua bat irakurri drunago. Tunes, Argelia eta baxeretan sorta diran etabaitzak. Lufalde ofetik France'ren babesian dago, kolonizantza ean, Opa'dirien bat, erailkuntza gofjak ardua dira. Paris'ko iparringietatik arduaz dagoen egin gailuak dira, te-gailik diran gora-berak ofetik.

Aprika'ko iparralde ofetako bitantilik euren lasterjatan akantuzana eukatu dar-oen. Baha arkatuzan-mai orri ez-este gurari bitantilik, ber egiri-egiriaren dau-ko. Baha arkatuzan-mai. Astero erail doroen jodatu batzuk. Zeigaki? Julitarren eeste marfokotz-ak. Astero erail doroen jodatu batzuk. Zeigaki? Julitarren eeste marfokotz-ak.

Mara'okok-aldian auzerapen amajak egin dau France'ko. Losetzeren zain-dira. Mara'okok-aldian auzerapen amajak egin dau France'ko. Losetzeren zain-dira.

Lufalde arretan dargi diranak 15000 miloi frankotan birbidituen dabe-cek' moliak alio eragili el-dau. Lufalde arretan dargi diranak 15000 miloi frankotan birbidituen dabe-cek' moliak alio eragili el-dau.

Baha igokuen amondu izan dau maomata'k. Euzar eragiliak dagoen. Baha igokuen amondu izan dau maomata'k. Euzar eragiliak dagoen.

Amanat'ko erasi bat atxatiduen dabe; jufetaki eskubié edo deretzo on-berak dagoen. Amanat'ko erasi bat atxatiduen dabe; jufetaki eskubié edo deretzo on-berak dagoen.

Orain gaxta gaxta ixango da arein arrian kintarrazoan etabait. Orain gaxta gaxta ixango da arein arrian kintarrazoan etabait.

Nau - erantzungak

LAUKETA Jauna: Eriko neska...

LAUKETA Jauna: Eriko neska. LAUKETA Jauna: Eriko neska. LAUKETA Jauna: Eriko neska.

LAUKETA Jauna: Eriko neska. LAUKETA Jauna: Eriko neska. LAUKETA Jauna: Eriko neska.

Astefrei-lan banan, iturrian izen onaren berriak, berak izandak-berriak biden, Eberriko Katariere gaxuagaz egin eban loko Josepako oto-otuzen bihurtatu er-berriak gaxuagaz egin eban loko.

Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena. Udaberrija, itxaropena.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa. Mitxelela eta amiamokoa.

Zarautz

Euzkadi, 1931-11-11

Gudari

Amilibiatar Peli, Arrietatar Maren eta Muruatar Juste mutil zintzuak. Osasun onarekin eta orain baxen euskaldun lenbailen atzera biurtia opa diegu.

Izpar beltza

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Urbietatar Koldobika, ta Martineztar Paustin be bai. Goian begoz.


Sendikuai lagun gaiakeze atsekabian. Zuk, irakurle, otoi bat il-dakuai.

Baserritarrak

Aspaldion oneik lana ugari dute: sagar-batzia dala, artuak etxeratzia eta abar. Jaungoikuari eskerrak lanerako eguraldiak ere ederrak dituzte.

Perratzalle berria

Il zanaren tokirako etorrita, getariar abertzale jator bat degu emen gere artian. Ongi etorria, ta baserritarren esanai poliki erantzunagaz zintzo-zintzo jarraitu ba aurrera.



Zarauzko kale nagusia

Antzezlariak

Euzkadi, 1931-11-19

Emeko Jel-Batzokijan batu ziran aurreko astean, eta erabaki zuten antzerki-jaiak antolatzea. Ortarako emakumiak duten bazkun ederrean ikasten asi biar dira. Bide ortatik aurrera gazte lirañok.

Dema-jokoa

Iri-demak zirala-ta, makiñabat baserritar batuz. Lau iri alde uzartu ziran batez. Lau iri alde uztartu ziran. Guztiak lan ederra egin zuten. Lenengo saria Aiako Armendira jua zan.

Martin deuna

Martin deunaren jaiak ziralata, Urdaneta ballarako baserritarrak euren asto ta gurdi guztiakaz, ardatzak beteta, emen igaro ziran geure txaide zear, txistu-soñutan. Ori dek ori gauzaren eramana!

Naskaldia

Aprikan gudaritza egin ondoren, Saarobida gaztea emen arkitzen da. Amerika alderuntz jua da Berazaditar Koldobika. Ondo ibilli. Trekutar Imanol abertzale zintzua gaxorik arkitzen da. Azkar osatu.

E.A.B.

Igasi zan igandez batzokian izan zuten beren batzarra ta artezkari batza era ontan izentau zuten: Lendakari, Barrenatar Miren Arantzazu; orde, Berazaditar Itxaropena; idazkari, Izetatar Miren; orde, Agirretar Abeline; diruzain, Mouliandar Koldobike; Batzar lagun, Muruatar Bitore, Agirrezabaldar Imanole, Etxabetar Jone, Agirretar Arrentza. Orain aurrera jarraitu zebe lanetan.

Aritza-ri

Zure idazkiak poztu ninduan, lagun bat dedalako. Uste det Lauaxeta argiak toki pixka bat egingo digula, askoren biarrik ezteguneko. Baita ere ziur nago gure okerrak zuzenduko ditula.

Zarautz

Euzkadi, 1931-11-29

Iragarrita zeguan bezela, irakaslearen gogo aldezko jaupa Aita Pantzeskatarren txadonan izan zan. Zarauzko abertzale zintzoak bein eta berriro aberriaren naia edo agindua apalkiro bete dute. Gizon eta emakume, zar eta gazte, txiki ta aundi, nagusi eta morroi, guztiok otoi dagite Sabin aundiaren aldez (G.B.).

Itzaldi aberkoia

Lengo egunetan esaten genduan bezela, gabeko bederatzitan bere itzaldia egin zigun Lizarditar Xabier olerkari ospatsuak. Lizundiatar Iñakik guztiz apain eta egoki aurkeztu zuan, txalua pranko irabaziaz. Ondoren ekin zion lanari erritar jakintsu azkar arek, eta izan zuan zeñek entzun ere, sardiña zarren antzera giñan guztiok iñora oñik aldatu eziñik-eta. Egundo alakorik! Gogoratuazi zizkigun gure irakasliaren lan egite aundiok eta bere erakusbide ederrak. Abertzaletasunatzaz itzegin zigun garbiro erakutsiaz zer bidetatik jo biar degun. Euzko Langilliengan ere mintzatu zan, esanez garrantzirik aundienetako gauza bat orixe dala gaur, eta bertan bazkietu biar dogula al degun guztiok. Euzko Ikasliak egiten ari diran lan aundia garbi agertu zuan. Emakumiai itz goxo batzuk zuzendurik ixildu zan idazle eta olerkari bezin izlari sutsu eta bikaña dan erritar jakintsu ura, baña txaloak etziran ixildu aldi baten.

Ondoren lau bertsokin neronek eman nion jaiari azkena.

Basarritarrak

Guztiz aserre eta biurri dira emengo udal gizonakin, sagardua-
ren gorabera ori dala-ta, orrenbeste denbora igaro eskutitza edo idazkia errira zuzendu zutela eta erantzunik ez dute oraindik. Irakurriari ainbat jaramon etzaiotela egiten diote.

Izpar beltza

Azken laguntzak artu ondoren Jaunaren besoetan il da Iruretagoyenatar Joseba Andoni, Izeta basetxeko gizon gaztea. Atsekabian laguntzen diogu sendikoai.

BASARRI

Zure olerkiak leku pixkat degunian argitalduko dituguz. Bitartian asketsi.
L. [Luzear]

Zarautz

Euzkadi, 1931-12-10

Euskera

Igaro diran zortzi edo amar illabete auetan, izugarrizko aldakuntza bat nabaitzen degu gure txoko maite onetan. Aldakuntza ori, gure aberriarengan edo izkuntzarengan maitetasunik degunentzat, guztiz atsegingarri zaigu. Txiki txikitandikan arreta aundia izan det, zein tokitan zer izkuntza entzungo, eta esan biarrik ez dago zuzen emongo dedala Zarauzko gertakizunen berri. Lenago uri onetan enparantza nagusira ezker, erdera gallen edo buru izan da esate baterako, batez ere emakumien artian, baña gaur jaunari eskerrak, zorioneko aldakuntza ori iritxi da oneraño. Zarauzko emakumiok esnatu dira, beren ama ezagutu dute, eta ori naikua ez dala, bazkun eder bat antolatu dute, eta bertako bazki-deak, berreun urrian dira. Ia bada anai-arreba biotzekuak. Ekin gogor, idazle azkarrak zion bezela, maita dezagun geure ele mai-tagarria dan euskera, bera dalako euskaldunen esia edo muga.

Azkoitira

Berezibil aundi bat antolatuta, gazte aldra izugarri bat zuzendu zan Azkoiti alderuntz lengo egunean, Mendigoizalien lendakari dan Altzeta jauna eta gure aldun jakintsu Agirretar Joseba Andoniren itza entzutera, oso gogozkuak izan ziran itzaldi oriek, eta arratsaldian Azpeitira juanak ere baziran.

Barbara deuna

Urtero bezela aurten ere, egun orri dagokion aunditasunez ospatu da. Goizetik ezkillen deiari erantzunaz bidiak betian igaro zan jendetza aundia goiko mendi gañera bertan jaupa entzutera. Arratsaldeko feria txit ederra izan zan, oitura dan bezela.

Izpar beltza

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Beristaintar Primo mutil gaztea (G.B.). Ain ezaguna izanik errian, bere agurtza eta il otoitzetan oste aundia bildu zan. Laguntzen diogu atsekabeen bere sendi-koai, eta irakurle, aita gure bat bere gogo aldez.

Antzezlariak

Beren ikaskizunetan gogor ari dira entzun degunez; illaren ogeian izango da. Itxaropen osua dago egun orretan izlari bat izango degula gure artian. Aurrera bide ortatik.



Hondartza eta Santa Barbara

Luzear zuzendari jaunari

El Día, 1931-12-13

Aspalditik nere gogoa zeguen bezela, lenengo aldiz nere lumatxua artu dut gure begiko *El Día* izparringi maite onetara idazteko. Nere txirotasuna ondo ezagutzen det, baña ikusirik erri ontako euzko idazleak ixildu dirala, ezin eramanik nago eta neronek eman nai diot lanari. Itxaropen osua daukat, Luzear*, toki piska bat zuzenduko didazula, askoren biarrik ezta izango-ta.

Barbara Deuna

Urtero bezela aurten ere egunari dagokion dizdiratasunez ospatu da. Goizetik askoren deiari erantzunez bidiak betian igaro zan jendetza aundia goiko gañera bertan jaupa entzuteko. Arratsadeko pesta beti bezela guziz polita izan zan.

Eriotz samiña

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Beristaintar Primo mutil gaztea. Goian bego. Ain atsegiña eta ezaguna izanik errian, bere agurtza eta otoitzetara ozte aundia bildu zan. Laguntzen diogu atsekabeen bere sendikoai eta irakurle, aita gure bat bere gogo aldez.

Emakume Abertzale Batza

Gutziz gogotsu alegintzen dira aspaldi onetan Zarauzko emakumeak. Beren bazkun ederrak laixter atiak irikiko dituan soñua dago. Aurrera bide ortatik.

Antzezlariak

Euzko Etxeko antzezlariak beren ikaskizunetan asi dira. Entzun degunez illaren ogeian izango dute antzerki-jaia emakumien are-

* Ander Arzelus *Luzear* idazlea

to ederrian, eta lenengua nola duten, asiera on bat izan dedilla. Egun berian izlarien bat izango dan susmua badago. Urrenguan emango det guztien berri eta onenbestekin bukatzera nua.

Asiera polita, Basarri, jarrai ortik. L.

Zarautz

El Día, 1931-12-25

Nere bigarren idazkiaren asiera izan bedi “Euskal Orria” onetako zuzendari dan Luzear jaunari eskerrik sutsuenaz ordaintzeko. Eskerrak bai zuri, nere txirotasuna ondo ezagutu arren, idazlerik jakintsuen eta azkarrenai ainbat toki egin didazulako. Ziur egon bada, irakurle, al dedana egiñez zintzo jarraituko dedala.

Itzaldi aberkoia

Iragarrita zeguan bezela, Emakumien bazkun edo aretoaren zabalkundea zalata, bere itzaldia egitera etorri zitzaigun idazle goien goienekua dan Ariztimuñotar Joseba “J. Aitzol” izen ordañagaz ezagutzen dan jaun agurgarria. Ixillik egoteko askoren antzera nere gogua ere ezta egiten eta argatik oldoztu det zerbait idaztea.

Barkatu, irakurle, ni ez naiz diña jaialdi orren berri zuzen emateko, baña nere oker eta guzi zerbait aditzera eman gabe egotarik ez derizkiot.

Arratsaldeko laurak dira eta elur bustiak eraso dio. Zigordi kalea betean emakume eta gizonezko, olatu batez sartzen dira bazkun berriko atetan eta gure gogua zan bezela, alako batean sartu gera barrena. An ikusten degu idazle bezin izlari sutsu ta bikaña dan Joseba azkarra; besuak zabalduta dei dagie Zarauzko emakume eta gizonezkoai, esanez zer laguntza egin biar diogun lanik gabe edo ogirik gabe arkitzen diran euzko seme txiroai. Argi eta garbi adierazten digu zer biarrekoa dan gaur alkartasun eder onetan bazkidetzea bera indartu eta sendotzera. Bertako txalo beroak galerazten diote izlariari aurrera jarraitzea. Gure araudia-tzaz mintzatzen da, eta esaten digu gura ez izan arren pixka bat izanda ere artu egin biar degula. Jaungoikuan adiskidien berri garbi ematen digu, eta beste gauza asko olaxe.

Argia-ren Egutegia

Egutegi au eskutan artzen dedanian nere kolkorako esan izan det: Urte bat geiago orain ere bizkarrian. Baña pixkabanaka bere orritxoak zabalduaz eta gogo onez irakurriaz, beriala urtiak aztutzen dira. Ura gauzaren edertasuna! Ango idazki eta edesti, angolerti eta gañuntzeko irakurgai gozo eta parregarriak! Laurleko bat gorabera nork utzi erosi gabe?

Irakurri bada Argia-ren Egutegia.

Naste Borraste

Lengo egunetan esaten genduan bezela, larunbat arratsian bere agertaldia egin zigun gazte talde bikain eta kementsuak. Denbora ere alakua egokitu zan eta sarrera aundirik etzan izandu. Baña bai ikusgarri ederra eta gogozkua izan zala uraxe. Entzun genduan eresi eta abesti ederrik.

Baita gure margolari ospatsua dan Mujika aundiaren ama garbiro azaltzen zan bertako margo eder eta apañetan.

Zorionik sutsuenak irakasle diran eta gañuntzeko antzezle guztiari.

Euzko langilleak

Eguardiko amaika t'erditan, otzari aldegin naita, sartu gera azoka zarrian eta beriala ikusten degu errenderiar eletari sutsua dan Lasa jauna altxatzen dala guztiori itza zuzentzeko. Egi mardul eta sakonak esan zizkigun. Zarautzen komeni bezelakuak nere ustez. Entzule guziok arretaz egondu giñan eta garbiro ikusi genduan atzerritarrak zer asmo artu dituzten gu menderatzeko, eta guk zer bidetatik jo biar degun. Ondoren Pasai Elkarteko lendarikari dan Jauregitar Errapel mintzatu zan. Beste gauzekin batian garbi esan zigun Pasaian gertatu dana.

Oso txalotuak izan ziran bi izlariak.

Laborde abeslaria

Edergarrizko itzaldiaren ondoren jaiki da abeslarien buru dan Laborde aundia. Loreskin edo pianoaren laguntza egiten dio abes-ten. Nere belarriak ederki gortuak gelditu zirala, urruti xamar banitzan ere. Ori dek eztarriaren edertasuna!

Naskaldia

Eguarriak aita eta amaren ondoan igarotzera Ferroldik etorri dira Gesalagatar Eleuterio eta Amutxategitar Manu gudari zintzoak. Igandean agurtu genduan Labaientar Andoni idazle ospatsua.

Antzerki-jaia

Lenengo aldiz beren agertaldia egin ziguten Antzokiko antzezla-riak aretoa bete betea notiñez zan. Algara eta parra izan zan uga-ri, izan ere ura da lana egitia. Aurrera gazte bikañak!

–*El Día*-ko idazle ta irakurle guztiai Eguarri zoriontsuak igaro-tzea opa dizutet “Euskal Orria” onetako zuzendari Luzear jaunari batezere.

Berdin zuri ere Basarri ta ez ontan gelditu, e? Jarrai, jarrai! –L

Anaitasuna erakutsi

Euzkadi, 1931-12-30

Erakusbide ederra benetan aurtengo negu illun eta naigabetsu onetan euzko abertzale zintzoak azaldu dutena. Gizonik maitatuena ta gogozkuena izan oi da bere lan egite ederrez edo bere maitasunez beste batzuek ondo jartzen dituana, eta ez itza eta pitza erabilli, oritasunezko gauza asko agindu eta ondorenian ezerrez. Gaurko egunian garbi ikusten dan gauza ori da, guztiok dakizuten bezela. "Sozolistuen itzaldi bat naikua da, or entzungo dezute langilientzat maitasuna guk degu eta ez bestek, nai ta naiez langille guztiok onera etorri bear dute beren buruak lasaitzeko, bear dan neurrijan lana egin eta ontasunian bizitzeko eta bear diran aginteak artzeko". Orrela beste gauza asko.

Gu euzkotarrok bertako bazkide ez geradenok omen gero "kaber-nikolas" atzeratuak noski ta besterik ez bezelakuak. Egia aitortuko diogu, gu besterik ez bezelakoak gera abendaz, izkuntzaz, oituraz, jolasez eta guztira. Baña kabernikolas nortzuk diran ikusten, guri pakian utzi ta beste batzun billa asi biarko dute.

Zein erakusbide ederra euzkotarrok eman dutena! Alkarren-ganako maitetasuna garbi erakutsi da Euzkadiko abertzalien artian, negu beltz eta mingotz onetan ogirik gabe era txarrean gelditu diran gure anaiak zoritxarra ta istillu gorria ikusten daude. Baña gogoratu Sabin aundiak ziona.

Abertzaletasuna maitetasuna da, ta ala izan ere une ontan garbi ikusten dan bezela. Anaienganako maitetasunagatik Euzkadiko abertzaliak zabaldu dituzte arpideak, eta baita txindia pranko batu ere.

Gauza ederra benetan, Euzkadiko emakumiok azaldu dutena eta egin duten lana eta baita txindia pranko batu ere.

Nork du langillienganako maitetasuna eta nork egiten dio laguntza langilliar, sozolistuak ala abertzaleak? Zabaldu begiak.

Zarautz

El Día, 1932-01-06

Artzai ona

Barrenak alaxen agintzen dit, eta beñere baño poz eta atsegin aundiagoz artzen det nere lumatxua bere bidez eskerrik sutsuenaz jaun bati ordaintzeko.

Zarauzko batzokia sortu edo zabaldu zanetik onera lan onurakor eta aberkoi asko egin da. Aberri aldez aleginduak ez dira gutxi gure erri onetan.

Baña nork ukatu gentzake eta nork eskertu gabe utzi Zinkunegitar Joseba sendagille ospatsua? Zerbait batzokiko gorabera dala, euskera landu bear dala, edozer idazlan, antzerki eta abar, aberri aldezko gauza guztitarako prest dago gure Joseba aundia.

Euzko Etxeko gaztediaren izenian artu itzazu eskerrik sutsuenak eta arren eskatzen dizugu aurrera ere gure artzai izan zaitezela ardiak bide zuzenetik jarraitu dezaten.

Euzko Etxea

Iragarrita zeguen bezela, geren batzarra izan genduan lengo egunez Jel-Batzokian. Bost lagun berriak sartu dira artezkari batzan eta ara emen garbi zein eta nola: Lendakari, Lizundiatar Iñaki. Orde, Ayerditar Joseba. Idazkari, Solaberrietatar Joseba. Batzarkide, Beristaintar Bittor, Garrastarzutur Lander. Eskerrik sutsuenak lengo Artezkari Batzari, eta berriak urte ona izan dezala.

Eriotzak

Gaixoaldi luze baten ondoren il da Garmendia eta Garmendiar Prantziska, Arrutiren alarguna. G.B. Laguntzen diogu atsekabe garratz onetan ain abertzale zintzuak diran bere seme eta alaberi, aide ta gañuntzekuari. Irakurle, aita gure bat ildakuan aldez.

Baita ere il zaigu Eizagirretar Joakin. G.B. ikatz zale zintzoa. Gure samin agurra bere sendi naigabetuari.

Emakume A.B.

Emengo emakumeak aberriarenganako gosea ase eziñik, bere itzaldia egitera ekarri ziguten Oruetaren Ramostar Paulina andere abertzalea.

Aretoa aundia eta ederra izan arren bapo betia zan, arraiok ezpaitu!

Aurkezpena oitura duan bezin apain eta dotore Etxabetar Mi-renek egin zuan, txalo ugariak entzunaz. Ondoren ekin zion lanari emakume sutsu eta abertzaleak, eta bai itzegin ere; alako etorriarik ark zeukan beintzat. Aberriaren itza entzuten Zarauzko emakumiak bai arreta ederra gorde ere. Itzaldiaren berri emateko ezagutzen det ez naizela diña, bakar bakarrik esango det nola asieran ala bukaeran txalo ederrik artua izan zala.

Antzerkiak

Egun eder eta atsegiñak igaro diranak! Antzerkitarako zaletasun pixka bat duanentzat batez ere. Jai arratsaldia iritxita batzuen gogua da sagardotegira juan, jan da edan egiñez bertan orduak igarotzea; beste batzuna enparantzara juanda dantzatzea, eta era askotan orrelaxe. Nik neronek ez derizkiot ezer gauza ederragorik eta atsegiñagorik antzerki-jaiak baño. Urtiari asiera emanez, gure antzezlari gaztiak bigarren aldiz aurkeztu ziran lengo egunez beren antzeztokira. “Dos Amores” izena duan antzerki ederra azaldu ziguten. Ain gogozkua izanik jaialdi ori igandean berriro antzeztu zuten. Aurrera gazte bikañok!

Barrenatar Arantzazu

Urte berri egunerako “Gibel Aundi” iragarrita egon arren etzan antzeztu. Ordeko, Barrenatar Arantzak olerki eder batzuekin gure gogoak bete zituan. Txalo ugariz ordaindua izan zan.

Zarautz

El Día, 1932-01-15

Abertzaletasuna

Bear bearrezkoa genduen askatasuna iritxi ondoren Zarauzko batzokiak bere atiak zabaldu zituan. Gazte gaztetandik aberriarenaganako maitetasuna nabaitzen nuen neregan, eta nere etxe benetakua bera zala ikusirik bultzada batez izen-abizenak eman ditut bertan.

Berrogeita iru bazkide ziran artian, baña bai bazkide sendoak, eta bai abertzale bikañak. Gure irakaslearen azia zabaltzen ez dira gutxi aleginduak, urtez ere eldu antxak dira geienak, eta ongi ezagutzen dute beren aberria, baita maitatu ere beren lan egite ederrez eta beren erakusbide ederrak zabalduaz alde guttitara. Jaunari eskerrak gaur gaztedi ederran jabe dira. Orduan 43 bazkide, gaur bagera 160, gazte eta zar, guztiok gure ikurritza bakarra maitatzeko eta berari jarraitzeko "Jaungoikoa eta Lege Zarran" alde.

Igaro dan igande orretan gorako aundia egin du ikusten danez gure alderdi onek, izan ere nola ez ikusirik gure gaztediaren anaitasuna, ikusirik berak eten gabe egiten ari diran lan ugaria. Batzuk dantzak ikasten ari dirala, beste batzuk abeslari dirala, enparantzan txistua jotzen dutela bestiak, ereslari, izlari, idazle, antzezleri eta abar, guztiak asmo berdiña dutela, eta guztiak kaiola batera biltzen dirala. Ori gazte bikañak, aurrera bide onatik, zuzen goaz ta.

Urte zarra amaitu da ta berriari asera eman diogu. Nere gogoa litzake abertzale guztiena bezelaxe, urte berri onetan ezjakin daudeneri erakustia, bide okerretik dabiltzanak zuzenera ekarriaz, tamalez gure aurka dirala ta asmo berdiña ez tutelako alkar ikusi nai ezik etengabeko burrukan ibiliaz. Beste era batez konpontzen dira gauzak, eta ez inorenaganako asarez. Gure anaiak dira guztiak, kopeta beltzik ez jarri inori, jua eta aditasunez eman berari

itza, gure aberria Euzkadi dala aitortu, bere izaera edestu, gure oñarria euskera dala adierazi, eta entzun ondo beren erantzuna. Onez dijuanari onez erantzuten zaio-ta.

Negu beltzaren urrengo udaberria dator, eta poztu gaztiak arrosa usaira eta ekin gogoz lanari. Gure irakasle Sabiñek ziona, abertzaletasuna maitetasuna da ta ez besterik. Aurrera bada guziok zabalduaz azi onurakor ori, uri eta mendietan, kale eta baserrietan guziok ama egiazkoa ezagutuaz eta bera zaindu eta maitatuaz, egunen batez gogoz abestu dezagun:

Askatasun eguzkia
basotik erten da.

Dema jokua zalata

Izugarrizko jendetza batu zan jua dan larunbatez uri onetan, dema eta peria batera egokitu baiziran. Gure baserriarren gogoak bete zituzten. Egundo alako leiaketarik noski! Azkenik Zarauzko Zoazuk irabazi egin zion Aiako Armendiari.

Emengoak sei plaza ta erdi egin zituzten, areriuak laurekin geldituaz.

Erregeak

Bezpera egunez kalerik kale emen ibili ziran, abesti ederrak abestu zituzten, eresbatzak atzetik lagunduaz. Txindi asko batu dute entzun degunez, eta gaxotegirako dira guztiak.

Zarautz

El Día, 1932-01-23

Bolara

Aurreko larunbatez emengo Zoazuk eta Aiako Aramendiak egin zuten arraia ondu baietz jokua eginda, Getariko Bizkarra basarriko iriak etorri ziran biamun arratsaldez, igandez jokatzeko.

Arraiok ezpaitu, bapo aleginduak izan bear zuten baña beste bien mallara etziran iritxi, oso urruti ezpaziran ere.

Karlatarrak

Gure belarritarra eldu danez, emengo karlatarrak gogor asteko asmoak dituzte. Etxe zar aundi bat erosia dute, eta bera apainduaz bear dan bezela, bazkun ikusgarri bat jarriko omen dute beian, gora bizileku ederrak dituala.

Egin dezatela, errian lana izatia ezta iñoren kalterako.

Landara berriak

Aurreko larunbatez Getari auzo errira itzaldi bi zuzentzera jua ziran Ayerditar Mikel ta Alberditar Emilen abertzale gazteak. Biamunez erri ortan gertatu nintzan ni ere, ta gazte batzuekin izketan jarri ta ala zioten: Ura itzegitia atzo zarauztar abertzale bikain ta trebeak! Asiera gogozkoa izan dezute entzulentzako eta ortan gelditu gabe, aurrera bide ortatik!

Igandean Urtetara guztiok

Datorren igandian, illaren 24an, Urteta ballaran jaialdi aberkoi bat antolatu degu. Eguerdiko 11tan, jaupa ondoren, itzaldi aberkoia izlari izanik Mendigoizalien lendakari dan Altzeta, Eizmenditar Iñaki bertsolaria, Eizagirretar Bingen erritar azkarra: ta ia igandean guztiok aberriaren itza entzutera!

Antzerki-jaiia

Illaren 16rako iragarrita egon arren antzerki-jaiia, Gogo jardunak dirala ta zortzi egunez atzeratu da. Beraz illaren 24an izango da ikuskizun eder ori, esaten gendun bezela antzeztuaz: “Cada oveja con su pareja”; “Ostegun Gizen”; ta “Gibel Aundi”.

Arratsalde alai ta atsegin bat igaro nai dunak, emakumien aretora juatia dauka igandian betiko orduan.

Deun Agate

Izugarrizko gazte talde bat ari da oitura zarrari jarraituaz egunari dagozkion abesti ederrak ikasten. Aurtengoa ikusgarria izango dala ez dago esan bearrik.

Eriotz samiñak

Gaixoaldi luze ta neketsu baten ondoren il da Eizagirretar Jokin, argin ezaguna. G.B. Baita ere il da Amenabartar Jesuxa anderea. Laguntzen diegu atsekabeen beren sendi naigabetuari, ta irakurle, aita gure bat ildakuen aldez.

Naskaldia

Bere ikaskizunetara berriro Zaragoza alderuntz juan da Etxabertar Josu ikasle gaztia.

Eta Barzelonara Lizundiatar Julen.

Atsedenaldia gurasoekin igarota Amutxategitar Manu ta Gosalagatar Eleuterio gudaritzara.

Gaxorik aurkitzen da Goenagatar Joxepa. Lenbailen osatzea opa diogu.

Ezkon deia

Igasi dan igandez deitu zan erriko izparkari eta izlari trebea dan Alberditar Emilen, Arregitar Abeline neskatxa lirañarekin.

Zorionak, adiskide, eta urte askotarako izan dedilla uztarri onurakor ori.

Zarautz

El Día, 1932-01-27

Dantza lotua

Lendikan ere bein baño geiagotan oldozpen galantak eduki izan ditut lerro auen bidez aitatzan ditudan gauza oiezaz. Dantza lotua! Edozein euzkotarrek badaki ondo dantza lotua ez dala euzko oitura, badaki baitere, gure osabak beste era batez jolasten zira. Nik uste det iñungo batzokitan bazkide dan batek obetogo jakin bear duala.

Gu zarauztar abertzaleak poz pozik arkitzen gera gai oetzaz urtebete onetan ikusi degun aldakuntzakin. Bolara batian emen iñori etzitzaion gogoratzen aske dantzaterik.

–Txistulariak ari dituk, dantza egingo al degu?

–Ago ixillik motel, dantzik aitatu gabe, eta goazemak or auntza.

Aruntz eta onuntz ibilli piska batian, eta oraintxe ereslariak asi dira. Aupa mutillak! Olatu itxusi baten gisan guztiak an dijuaz eta alkarri toki egin eziñik an dabilta biraka. Zarautzen ori ikusi degu orain arte eta oraindik ere naikua ikusten da tamalez.

Gutziz pozgarri zaigun gauza bat da, aske dantzaten dala gure gaztedia ikusten degunian.

Emakumien artian zaletasun aundia dago oraindik lotuan dantzatzeko. Samingarri zaigu auxe benetan.

Nik iritzi bat emango det orain, (barkatu ausardia) iñungo irakasle ez naiz baña. Bear bearrezkoa derizkiot nik euzkotarrak euzkotar bezela azaltzia gaur dan egunian. Ta ori nola? Guztiok senide bezela, gere egiazko oñarria dan izkuntzan mintzatuaz, euskera garbia erabilliaz geure ezpañetan, eta gure antxiñako oiturak gordiaz, eta euzkotar bezela, euzko jokoak iraun dezatela gure artian.

Utzi bada oker bidia eta jo zuzenera! Dana era batera ezta erreza. Belar txarra galtzen gaiztua baida. Baña igande batian

iru ekiñaldi egiten badituzu dantza lotuan, urrenguan bi eginda gelditu.

Abertzalea zera eta ezagutzen dezu ori ez dala zure jatorra. Urrenguan ekiñaldi bakarra naikua dezu. Eta orrelaxe piska banna bide txarrari aldeginde, sartu gaitezen gure aitona zoriontsuak zuten bidian, eta orduan, gaur baño trebeago eta indartsuago esango dezu:

Euzkadi euzkotarrentzat! España españatarrentzat!

Euzko langilliak

Igasi dan larunbatez zuten beren batzarra. Urteko goraberak garbi azaldu ondoren, artezkari batza era onetan izendatu zan:

Lendakari: Alberditar Joseba.

Ordeko: Kastrotar Koldobika.

Idazkari: Berazaditar Josu.

Txindi zai: Zabalegitar Andoni.

Batzarkide: Arostegitar Baler, Etxabetar Pantzeska, Agirretar Gotzon.

Zorionak bada guztioi, urte onetan ia gorako aundia egiten duan alderdi onek, garrantzi aundia berak daukata.

Basarritarrak

Sagarduaren gorabera dala ta, oso gogor dabilta gure nekazariak. Igasi dan igandez batzar nagusia izan zuten emengo azoka plazan, eta erabaki zuten orain arte egin duten lana, eta aurrera antzian egingo dutela eskatzen dutena iritxi arte.

Antzezlariak

Iragarrita zeguan bezela igasi dan igandez ikuskizun ederrak izan giñuzen. Zarauztar antzezlariak bein eta berriro lan ortan duten egokitasuna garbi erakutsi zuten. Antzezkizun auek ziran:

“Cada oveja con su pareja”, “Ostegun gizen”, ta “Gibel aundi”.

Txaloak berriro antzezlari, eta jaialdi pozgarri auen eraleai.

Zarautz

El Día, 1932-02-06

Anaiak, agur

Españaiko erkal lendakarien oraingo agindu onek Zarauzko erria naigabe garratz eta aundienian uzten du. Josulagunak kanpora! Bai irakurle bai, Josulagunak kanpora. Iñori laguntzera bestetara ausartu ez diran gizonak, iñoiz eskaera bidegabeko bat egin ez dutenak, biarrian arkitzen danari lagundu baizik. Erakusbide ederrak emanez, euzko seme goguagarri Iñaki deunaren jarraitzalle zintzoak beren aberria negar malkoz bustita, beren sendi eta guraso begikuak beren tokitan utzi eta urrun beste aberri bateruntz dijuaz.

Euzkadi oso osoa laño beltz batek estali eta illunpetako egunak igarotzen dago.

Zarautzek agur maitekor bat guztiai, eta berriro lengo tokira biurtzia da erri onen gogoa eta naia.

Itzaldirik ez

Erri guztia esan gentzake igandez Urtetara igotzeko asmotan zala, bertan iragarrita zeuden jaiak alaitasunez ospatutzeko. Baña, bai zera! Larunbatez artu genduan jaurle jaunaren agindua itzaldia galeraziaz.

Alaz guztiz ere gaztedi aundia joan zan.

Jaupa ondoren, basarritar batzuk bilduta, Arrutitar Txomin jaunak itzaldi koskor bat egin zien ango nekazariak, garbi azalduaz zein bearrekua duan basarritarrak alkartasun ori. Araudia irakurri ondoren bertan bazkietzeko eskatu zuan. Bapo, Txomin!

Bertso sastar batzuekin neuk eman nion azkena.

Ondoren aureskua atera zuten an bildu ziran gaztiak, bera- rekin jaiari azkena emanaz.

Amekume Abertzale Batza

Igaro dan iganderako iragarrita zeukaten emengo emakumiak itzaldi aberkoi bat, Zipitriatar Ira izlari azkarran gain. Baña Loiolara jua gabe gelditzerik etzegon, eta bertaruntz egin zuan oste guztiak. Urrenguan bai, ez bildurtu!

Naste Borraste

Datorren igandez, Iñauteriz, Tolosaruntza dijua gazte talde sutsu au berriro beren agertaldia egitera. Ikuskizunetan gogor alegintzen dira, lana bear bezin txukun eta garbi irten dedin.

Beste malla bat igo dezala ikuslien gogoak beteaz.

Gazte batek egin dit
lenguan galdera:
Aizak, bai al ua
Tolosa aldera?
Orrekin ez daukagu
guk milla galera;
Jaungoikuak nai badu,
or izango gera.

Zarautz

Euzkadi, 1932-02-07

Deun Agate

Poztasun eta alaitasun berdingabeaz, nere gelara jo ta asi naiz gogotsu zerbait idatz nairik. Badakit diña ez naizela egunari dagokion aunditasuna inongo izparringitara azaltzeko; baña dakidan ainbestekin alegindu nai nuke.

Agate Deuna! Antxiñako euzkotarren poza ta alaitasuna. Gure osaben oitura garbia. Oitura zarrak, euzko oiturak beintzat aspaldi onetan berako aundia zemakiten, ondatzen ari ziran.

Astebete bakarra izanik askatasun piska bat artu genduala... ez al da poztekua nabaitzen degun aldakuntza? Euzko oitura zarrak berrialdi gogorra dute, euzko mintzoa edo izkuntza zabaldu eta edertzen ari da, euzko irakasleak ugalduta dira, euzko ikastolak ikusten ditugu, euzko ikasleak geitzen dijuaz, eta orrelaxe euzko izaera zarra berpizten ari da.

Gure osaben jarraitzalle izan nai degu, eta berak zuten bidiari jarraitu nai diogu guk ere illoba zintzoak bezela. Oitura zar oieta-ko bat, aitatzen dedana da: Agate Deuna!

Gau illunian batzuk mendi gañeratuta, ballara batetik bestera basarri ate guztitan abestaldi gozuak egiñez, euzko irrintzi alaiak lo zorrotik esnatzen dute euzko sendi paketsua, eta ate ondoko bertsolariari arreta on bat jarriak, artzen dituzten gorantzian truke, eskutan damakite arrautza pilloa edo bestela txindia, egin duten lana ordaintzeko asmoz.

Eta oriek ola diran bitartean, Zarauzko kaletan ziar an dabil gazte talde sutu eta aberkoia. Euzko eresi apañez moldatutako abots zoragarri, ate ondok euzko sendi maitekorra laztandu eta goitzen dute; ondoren irabazitako sariari eskuak luzatuaz.

Goguangarria benetan zarauztarrentzako aitatu dodan egun zoragarri ori. Zarauzko gaztediak garbi erakutsi du aberrianganako maitetasuna, oitura zarrenganako zaletasun bizia, eta gure

aitonak ziran bezela aske izateko dear egiten du itxas ertzian
abertzaletasuna zabaltzen eten gabe ari dan erri polit onek.

Gora antxiñako oiturak!

EIZMENDI



Mendilauta

Zarautz

Euzkadi, 1932-02-14

Itzaldi aberkoia

Aurreko larunbatez itzaldi aberkoi bat izan genduan gure Jel-Batzokian. Berandu iragarri zalako edo, jendeak etzuan aitamen aundirik emen jaialdi orretzaz. Neroni ere ez ezjakin nitzan; ez-nuan uste egun orretan itzaldirik zanik. Oitura dedan bezela, batzoki aldera bira bat egitia oldoztu nuan larunbat arratsez. Sartu nitzanerako, aurreko aldera begiratu bat eman eta an ikusten det su ta gar mintzatzen dala Erretatar Mikel abertzale bikain eta jakintsua.

Euzkadi gure aberria nola dan garbi agertu zuan. Gure irakasle Sabin aundiagaz mintzatu zan, eta berarekin biltzen zira-den denbora aiek aitatu zituan; euzko araudi edo estatutoari bi ekiñaldi eman zizkion, garbi azaldurik zer aurrerapen daukagun alderdi oiek gureganatuta, baita ere esan zuan geure etxea zaitu bear degula ondo, gero auzuari lagundu bear bazaio lagundu, baña aurrena etxea.

Nola tartean ala bukaeran bapo txalotua izan zan. Ondoren, Euzko Abendaren Ereserkia abestu zan, berarekin jaiari bukera emanetz.

Naste Borraste

Tolosan egin zuan bere agertaldia Iñauteri egunez euzko usai utsa duan lagundi anai onek. Tolosarrentzat jaialdi gogozkoa zala derizkiogu. Txaloa pranko entzun genduan beintzat. Barrenatar Arantzaren olerki esate ura oso gogozkoa izandu zan ikusle edo entzule guztientzat. Donokitik jatxitako aingeru bat zirudin. Be-soak zabaldua arnaska estu batez Euzkadin larritasuna agertzen du; euzko izaera galtzea bear bada Aitzgorrik artu gaitzala azpian, dio.

Tolosak nola utzi txalotu gabe aren jardun goragarria bera izanik olerkarien seaska? An bildu ziran entzulien biotzak alaitu ziran, eta esku guziak alkar jo zuten, burruna alai arek luza-roan iraunez. Bejondaizula, Arantza!

Gañuntzeko ikuskizun eta abesti guztiak ere bapo txalotuak izan ziran. Zorionak bere zuzendari Muxikatar K. Nikola margolari ospatsuari eta Arroitajauregitar Endika ereslari azkarrari.

Ezkontza

Igaro dan astelenez ezkondu ziran, Alberditar Emilen ta Arregitar Abeline abertzale zintzoak. Urte askuan uztarri ortan irautea opa dizutet.

Gudari

Gudaritzara jua dira Aranburutar Modesta ta Amilibiatar Joseba mutil gazteak. Orko egitekuak egin da lenbaitlen biurtu zeren txakora.

Zarautz

Euzkadi, 1932-02-20

Antzezlariek

Irakurle, garizuman sartu gerade! Eta guk egiazko kristau ta egiazko euzkotar bezela, garizumari begirapen aundia diogu. Berrogei eguneko ixillaldiak eztu gaztetasunik galduko. Atsedean artu dezagun bada gazte geradenok, berriz ere soñuaren deiari erantzunaz dantzatzeko era laixter izango deguta.

Aurtengo garizuma, soñuak eta dantzak gelditu arren, zarautzar geranontzat ezta illuna ta aspertu erreza izango. Alaia ta laburra baizik. Bai, irakurle, bai, alaia ta laburra!

Zarauzko Euzko Gaztediaren trebetasuna ikusita, ziaro arritu egin biar du batek. Esan leike beren denboran antzerkitatik jan dutela ogia. Antzerkitako denbora ori guztiz atsegingarri egiten zaigu jaialdi orietarako batere zaletasunik deguentzat.

Zein une atseginak! Euzko usai utsa duten antzerki sakon eta mamitsuak dira gaztediak dabiltzkiñak. Eta esan bearrik ez dago, jaialdi bat bukatuta bestia noiz izango dan galdezka berak asten dira aurrena. Ori da zaletasuna! Abertzaletasunak ukuitzen dituan biotzak, euzko gauzetarako beti dute zaletasuna, Zarauzko gaztediak duan bezela.

Abertzaletasunari ain onuragarri zaion bide oni jarraituaz, Zarauzko euzko gaztediak ikuskizun ederrak antolatzen ditu; eta orain aitatzen ditudanak ere alaxe dirala derizkiogu.

Datorren igandean, arratsaldeko 6tan antzeztuko dira: "Anton Berakatz", "Ostegun gizena"; "Martoloren eriotza", ta "Biar arte ija jai". Une gozo ta atsegin bat igaro nai dunak, emakumien aretora igandean.

Zarautz

Euzkadi, 1932-02-28

Aizkora jokua

Izparringi batean iragarria egon bear zuan juañ dan jaieko aizkora jokua. Ibilaldi bat egiñez bertaratzia oldoztu genduan guk ere, eta iritxi giñanerako jendez estalia zegon inguru ura.

Benetako atarian izan zan ikusmira ori. Ta zer zala uste dezute? Egundo alakorik! Berrogei minutuko saiua egin ondoren, Permin arakiñak irabazi egin zion Azpillako gazteari. Aziñeta, poliki ibilli gero!

Antzezlariak

Iragarrita zeguan bezela, antzezkizun ederrak izan ziran igaro dan igandez; alde guzitara ezin ibilli gu ere, ta utsegin egin genduan juañ dan jaiekua. Nere belarritara eldu danez, oitura duten bezin bikain eta egoki egon ziran guztiak. Zorionak, eta berriro gurendaren billa.

Itzaldi aberkoia

Zarauztar emakumeak aberriaren mintzoa noiz entzungo beti gertu gaude. Eta igaro dan igandez itzaldi aberkoi bat egon zan, "Ira" donostiar euskal idazle azkarraren gain. Oso ederra egin zuan entzun gendunez. Zorionak.

Eriotza

Jaungoikuari kontu eman dio Arregitar Amalia andere alargunak (G.B.). Laguntzen diogu atsekabe garratz onetan bere seme nalgabetu Gotzon ta Josebari, aide ta gañuntzekuari. Irakurle, otoi ildakuaren aldez.

“Mendi Lauta”ri

Baserritarren alde egiten ari zeran lan onurakorra ordaindu ezin ala derizkiot. Zure idazlan bikañak pozik irakurri ditugu. Auzoko basetarritarren izenian da neu aurrena naizela, eskerrik sutsuenak ematen dizkitzut; eta arren eskatzen dizut gure zuzendari jarraitu dezazula, zerbaiten bearra badeguta.

Zarautz

El Día, 1932-03-18

Aurreko egunetan esaten genduan lez, igaro dan igandez itzaldi aberkoi bat izan genduan.

Aberkoia, bai, benetan aberkoia! Benetan eta gogoz maitatzen baidu abertzaletasuna Urzelaitar Julene azkoitiar andereño gazteak.

Berak maite du Euzkadi, bere aberria dalako; eta une auetan laguntza aundiaren bear dalako; jaramonik egiten ezpadiogu, bera goitan ta gaizkabidian jartzen alegintzen ezpagera, guztiok galduak gaudelako. Baña Julenek nabaitzen duan maitetasun ori aundia da, samurra da, eta itz batean, bear bearrekoa da; bere aizpa guztien artean zabaldu bearrekoa da. Bearrekoa dalako zabaldu nai du, lo zorroan dauden mutikoen artian; zabaldu nai du, lagun eta areriuen artian; zabaldu nai du, mendi, baso, erri ta erberan, zar eta gazte, txiki ta aundi, aberats eta beartsu, nagusi ta morroi guztien artian. Zein azi onurakorra andereño abertzale orrek zabaltzen duana!

Gure irakasle Sabin aundiaren azia; bere garaian igali mar-dulak emango dituan azia.



Oriek orrela dirala goazen arira. Arratsaldeko 4 t'erdia dira ta notiñez estalia dago emakumearen areto ederra.

Emakume abertzale arren aurkezpena egiteko "Mendi Lautu" idazle azkarra aukeratu zuten, eta oi duan bezin apain eta dotore egin zuan txaloa pranko irabaziaz.

Ondoren ekin zion lanari aitatu dedan andereñoak. Donokitik egatutako aingeru bat zirudin bere abots zoliakin.

Irabazitako goralmenak emateko ezagutzen det ez naizela diña, bakar bakarrik esan bear det, esan zituan egiak ez dirala beingoz aztutzeko.

Sarritan galerazi zion izlariari aurrera jarraitzea bertan sortzen zan txalo burrundak. Bukaeran ere berriak aditu zituan. Artu itzazu berriro idazle txiro onen zorionak.

Zarauztar emakumea, entzun al zenduan igandeko itzaldia? Entzun bazenduan badakizu zer bidetatik jo bear dezun. Entzun sarritan aberriaren itza eta zabaldu alde guzitara. Garaia da zer-bait lanean asteko.

Zorionak eta alaitasunak aldegin zuten gugandik, une estu ta larriak ditugu gañean. Ikusten da ondo gure aberriaren arrisku larria. Ikusten da ondo kanpo oietan gertatzen dana. Gaurtik biarrerako bildurrak gaude. Zer itxaron gentzake? Egunetik egunera gauzak estutzen dijuaz. Auzokoari laguntzeko prest gaude, baña aurrena etxea nai degu.

Zarauztar emakumea, utzi lo zorroa!

Ekin lanari, ekin aberri alde, ikurritz bakarra dan Jaungoikua ta Lege Zarren alde. Atsekabe ta samintasun auek baztertu ta ia lenbaitlen diña izaten geran alaitasunez eta zorionsu abes-tutzeko: Askatasun eguzkia basotik irten da!

–Emengo antzezleri trebeak bigarren aldiz antzeztu zuten “Garbiñe” antzerki zoragarria.

Bera ikustera auzo errietatik ere oste aundia etorri zan. Beti bezelako egokitasuna azaldu zuten, ta oso txalotuak izan ziran.

–Aberriaren egunean Bilboratu nai duanak, batzokian dagan ingi edo agirian agertu bitza bere izen-abizenak.

Abertzaleak! Pazkotan Bilbora guztiok!

Zarautz

El Día, 1932-03-25

Itzaldi aberkoia

Deun Joseba egunez itzaldi aberkoi bat izan genduan Emakumien areto ederrian.

Garbizutar Toma lezotar abertzale bikaña izan zan guri itza zuzendu ziguna.

Bere aurkezpena Zinkunegitar Joseba sendagille ospatsuak egin zuan, txalo pranko irabaziaz.

Ondoren ereslari azkar arek esan zituan egiak gogoan artze-koak ziran.

Ori dek erreztasuna! Etengabeko etorri arekin, bost ordu laurdeneko saiua egin zigun. Ni baño idazle trebeagoa nai litzake, esan zituanak arkitaltzeko. Bakar bakarrik esan bear det txaloz bapo osatu gendula. Ondoren Euzko Abendaren Ereserkia danok zutiñik abestu genduan, berarekin amaiturik itzaldi aberkoia.

Euskal izena

Lizundiatar Iñaki Euzko Etxeako lendakari ta abertzale sutsua danaren emazteak lenengo aurtxoia izan du. Iñaki Xabier euskal izen polita ezarri diote.

Gurasoak bezelakoxe abertzale zintzo baten itxaropena degu. Zorionak.

Lanik eza

Emengo landoletatik ere langilleak kanporatzen dituzte larunbatero, lan eskasia dagola-ta. Zer ikusi bear ote degu?

“Mendi Lautari”

Arraiua... ori dek sasoi ori! Ludian zanik ere gogoratzen etzitzai-gun garaian agertu zaigu dalako “Mendi Lautari” ori.

Ixillaldi ortan indartu da nunbait eta, ezta oraintxe giro. Bateko nekazarien goraberak dirala, besteko gertakizunak edo ipuiak, ezta idazteko kupira.

Erreztasun orrekin idatzi gabe egotia oben edo pekatu dala derizkiot. Jarrai, jarrai, aberkide begiko orrek, gure aberria darenen bearrean da ta.

Aberri-eguna

Berpizkundean bezpera degu
egunaren argiera.

Euzko biotza, euzko gogoa,
zertaz oroitzen zera?

Mendizaleak goaz bai goruntz
sasi larreak sutzera,
mendi gallurak auxe esanez
emango dute aditzera:

“Biar Bilbora, Bilbora biar
euzkotarra bazera”.

Jakindurizko gizon azkarrak,
igarro da gau illuna,
eta orduan, esaidazute:

Zer da gertatu zaiguna?

Amaika aldiz aitatu degun
Aberriaren eguna.

Igaroko da euzko anaiak
alkartuko dituguna,
Jainkoaren etxe alderuntz
zuzendu bear deguna.

Zarautz

El Día, 1932-03-30

Asteroko berriak

Biamunez aberriaren eguna ospatu bear zalata, bezperatik lanari gogor ekin zioten gure mendigoizaliak. Ostiral deunez gazte aldra zuzendu zan Pagota mendira bear zan zakarrera batzeko, biamunez sua pizteko asmotan.

Eta larunbatez (ez denbora gozua izanda baña) mendigoizale bulartsu aiek bertaratu ziran berriro, eta bere garaian goiko gaillurrak adierazi zuan biamunez zerbait ikusgarria zala. Gora zarautzar mendigoizaliak!

Jaiari asiera on bat eman nairik, larunbat arratsez abertzale asko batzokiratu zan. Eta Euzko Etxeako txistulariak une gozo ta atsegina igaroazi ziguten.



Azkenik iritxi zan orregatik aspaldian aitamenean gendukan aberriaren eguna.

Iritxi zan bai, gizatasunezko eguna. Egun zoriontsua! Egun paketsua! Egun maitekorra! Itz batean, egun berdingabea, berpizkunde igandea, edo Aberri-eguna!

Etxean baztertuta egotea errez etzanda, gu ere Bilboratu giñan. Zorionekua gure igandeko irtentaldia Bizkaiko uri nagusira. Irakurlen batek esan lezake, zer zan ordea Bilboan? Galdera orri bear bezela nik ezin erantzun.

Bear ainbateko goralmenik ezin eman nik egun orri, ni baño idazle trebeagoak ere ez diote emango ta.

Nik Bilboan ikusi nuana da: Abertzaletasun sendoa, gizatasun aundia. Pake donea, ta egun zoriontsua, egun goguangularria!

Ikusi nuan baitare Bilbaoko Euzko Gaztedian lan egite ederra. Ura zan gauzak antolatzea! Ura zan edertasuna! Ango mendigoizale, ango dantzari, ango ereslari, ango txistulari. Ango emakume, ta ango gizonezko!

Ikurrin utsak ere etziran zenbatzen errezak. Eta an bildu zan notintza? Zenbat ziran? Ogei milla... Berrogei... Irurogei..? Nere iritziak ez dute asmatuko.

Ango bultzien sarrera ikusgarria zan. Belbillena ez dago zer esanik. Itxasontzi aien sarrera ere atsegin izan zitzaigun. Txistu bizitan adierazi zuten kaieko beren sarrera.

Igandez ikusi genduana, abertzaletasuna urez ta abertzaletasuna legorrez.

Eta azkenik, Sabin-etxetik bere anai Koldobikak eta lau erkide-tako buruak zuzendu zituzten itzak maitasunezkoak izan ziran.

Urrezko eztaietan irakasleai zuzendutako goralmenari donokitik gozo erantzungo zion (gure inoiz aztuko etzaigun) Sabin aundiak.

Ezkon deia

Berpizkunde igandez deitu ziraden, Artetxetar Ixidor ta Muniantar Miren neskatilla liraña. Urte askotan uztarri ortan alkarrekin zoriontsu izatea opa dizutet. Zorionak, Ixidor.

Inguruko basarritarrai

Basarritarrak gere artean daukagun istillua guztiz naigabetsua da. Egiten degun guzti guztia besterentzat degu. Beti besteren morroi gaude, inora azaltzen lotsatu egin bear. Jazkeraz brusa ta makilla damazkigula, basarritarrak gerala ta, beti inoren ostikoperako? Ez, au ezin leike inola ere!

Eziñak bizkortuko gaitu. Neurriak estutu dira emen. Kaletarrak ere indar bearrian arkitzen dira, eta indarra alkartasunak berekin du.

Beragatikan alkartu dira kaletarrak, eta basarritarrak ere ori egin bear degu.



Datorren igandean Aizarnazabalen entzungo dezute alkartasuna zein bearra dan, eta bertaratu al dezuten guztiok. Bertan itz egingo dute:

“Mendi Lauta” idazle azkarrak, Eizagirretar Joseba legegizonak, Esnaltar Saturnin ta Eizmenditar Iñaki bertsolari gazteak.



Zarauzko Konstituzio plaza

Zarautz

El Día, 1932-04-15

Asteroko berriak

Urte askuan gaitz gogor eta aspergarri batek menderatuta iraun arren, igaro dan astean Jaunak beregana deitu zion, Amilibiatar Joseba erritar ezagunari. G. B.

Gure samin agurra bere sendi naigabetuari, eta, irakurle, arren eskatzen dizut otoitxo bat zuzendu zazula ildakuan aldez.

Emakume A. Batza

Zarauztar emakumeak, irakurle, alegintzen dira gero aberri aldezko lanean! Inoiz baño laguntza bear aundiagoan arkitzen da gure aberri laztana.

Gure artean neurriak estutzen ari dira!

Ebroz aruzko berri oiek ere ez dira oso alaiak; itunak eta nai-gabetsuak baizik. Gure errian jabetu diranak ere ala esan gen-tzake.

Gure ikurritz maitagarria dan Jaungoikua ta Lege Zarren jarraitzalle geranak beartuak gaude une auetan aberri aldez gogor alegintzera.

Oiek orrela dirala gure emakumeak jai ikusgarriak antolatze-ko asmotan dira.

Beren areto ederraren zabalkundea dalata, datorren il ortan egi ederra pranko entzuteko diña izango gera zarauztarrok.

Begitu bestela etortzeko itza emanda dauden izlariari: Agirre, Altzeta, Kareaga, Monzon eta abar...

Gure izparkari jatorra dan Pellok laxter agertuko du agerkai berezia.

Neronek ere jarraituko det aditzera eman ez, eta, irakurle, etzaitzela gelditu egun orretan Zarautz ikertatu gabe.

Igandean Donostin

Igaro dan igandez alakoxe egon ezin bat zegon zarauztarren artean.

Zarrontzale* jendeak Azpeiti aldera egin zuan. Abertzaleak Donostira berriz. Aruntzian gogo onez sutsu juan bagin, birakuan etzan zer esanik.

* Zarrontzale: Alderdi Karlistatik irtendako talde bat.

Zarautz

El Día, 1932-04-22

Asteroko berriak

Españaiko Erkalaren urtebetetzea zalata, jai egitera beartuak giñan emen ere.

Eresbatzak eta txistulariak beren saiua egin zituzten. Eguna oso alaitsu igaro zan, arratsean sesiorik asko izan bazan ere...

Urrengoan bearo

Igaro dan iganderako jai aundiak zeuden iragarrita Urteta ballarako; baña denbora ere alakua egokitu zanda, iñor ez giñan ausartu bertan ezertan atera. Basarritarrak egarri bizian zeuden aberriaren itza entzuteko; kaletarrak ez dago zer esanik. Berriz ere tarte bat izango degu noski!

Emakume abertzaliak

Beren aretoaren zabalkunde eguna urreratzen ari dan bezela zaraubar abertzalien artian zaletasun bizi bat sortu da, egun berria dagokion aunditasunez ospatzeko. Aurreko idazkian agertu nuan bezela, izlaririk goienekoak dira onuntz datozenak, eta olerkariak ere izango ote diran susmua dago. Beraz illaren bostian, Azentziaz, Zarautza guziok!

Igandean Zumaira

Zumaiatar Jel-Batzokiaren zabalkundea dalata, izugarritzko jaialdiak antolatu dituzte auzo erri orretan. Bera dalata makiñabat itz esaten da emengo abertzalien artian. Gure dantzariak ere an izango dira eta gaiñuntzean ez dago zer esanik Zarautzek beria beteko duala.

Izan ere zein ez joan Altzeta, Monzon, Kareaga ta Agirreri entzutera?

Euskalduna, igandian Zumaian da zure tokia!

Ezkondu diranak

Aurrekoa astean ezkondu ziran Artetxetar Ixidor ta Muniaintar Miren. Orobat Etxabetar Imanol ta Samaniegotar Karmen. Urte askuan zoriontsu izatea opa dizutet.

Zarautz

El Día, 1932-05-03

Zarauzko Emakume Abertzale Batza

Euzkotarrok, eup! Egun aundi eta gogoangarri bat urreratzen ari dala derizkiot. Egun aundi eta gogoangarria orrillaren zortzia zarauztar abertzalientzat.

Irakurle begiko orrek, irakurri arren egun orretan egingo diran jaialdiak, eta ondo irakurri ondoren, erantzun zintzo bere deiari.



Zarauzko Emakume Abertzale Batzak bere zabalkundea eta ikurrin onespena ospatzeko eraldu dituan jaiak:

EGITARUA

1932ko orrillaren 7an

Arratseko zortziretan, Euzko Etxeako txistularian biribilketa.

Zortzi ta erditan, euzko antzerki-jaiak, Euzko Etxean eta E.A.B.-ko antzokian. "Jauntxuba" bi ataleko antzerkia, "Etxietan" eta "Nagarrez igaro zan atsua" antzeztuko dituzte.

Orrillaren 8an

Goizeko zazpiretan, Jaupa ixilla ta jaunartzea.

Zortziretan Goiz eresia, Euzko Etxeako txistulariak.

Amarretan, Jaupa nagusia. Donostiar Aba bururdiñak egingo du txonitza. Ondoren ikurrin onespena izango da.

Au amaitzean E.A.B.-ren etxean Josuren Biotzaren jaureskundera.

Amabitan, ezpatadantzarien dantzaldia ta erestaldia.

Ordubatian oturuntza.

Lauretan. Itzaldi bikain eta aberkoia. Itz egingo dute: Kareagatar Eskarne andereñoak, Lazkanotar Miren andereñoak aurkeztuta,

“Altzeta” sutsuak, Monzontar Telesfor ta Agirretar Joseba Ando-
ni aldun gazte trebeak.

Ondoren euzko erromeria illuntze arte.



Beraz irakurle, badakizu egun orretan nora etorri. Esan zeu-
re lagunai ere, eta etorri aberriaren itza entzutera! Mendigoizale,
etorri, etorri Zarauzko abertzaleak besarkatzera! Etorri itxas er-
tzean abertzalez ornituta daguen kabi polit au ikertatzera!

Zarautz

El Día, 1932-06-01

Euskal izena

Gure adiskide begiko dan Amuskibatar Mikelen emazteak alaba-txo bat izan du.

Miren Gurutze Andone euskal izen ederrakin ugutzatu dute. Ama-alabak zoriontsu arkitzen dira. Zorionak Mikel.

Basarritarrak

Arto denbora nola baidan lanik asko badaukagu basarritarrak.

Geientsunak betiak dira bai aurten, baña oraindik ere txamar batzuk badaude giroan zai. Onduko aldira denborak!

Pesta aldi

Urteroko oiturari jarraituaz, Santa Maña ta Trinitade kalean, goizean jaupakin asi ta sekulako soñu ta dantzaketak izandu dira.

Aberri-eguna

Izen ori damakite Jel-Batzokira iritxi diran aldizkingi ederrak.

Orriak banaka banaka zabaltzen asita, nolako alaitasunak jotzen gaituan egun berian Bilbaoratu giñanak.

Arrapazka osoan saldu dirala entzun degu. Ederrak bai dira!

Itziarra

Itziariko jaialdi aundiak illaren 29rako iragarriak zeuden, baña guztiok dakizuten bezela, agintarien aginduz eragotzia gelditu zan.


Emengo Mendigoizalien artean gar bizia dago beren zaindari Ama Neskutsari ikertaldia egiteko.

Eguna denboraz iragarriko da noski!

Urdanetan

Zarauzko Mendigoizaleak eratuta jai aundiak izango dira: Eleizkizun, dantzari, bertsolari, izlari ta abar...

Urrengo idazkian adieraziko degu.



Dantzariak

Zarautz

El Día, 1932-06-12

Igaro dan igandez, Orio auzo erriko jaialdi aberkoiak ziralata, jeltzale alderdiak bertaruntz egin zuan. Ango bertsolari, txistulari, izlari ta gañontzekoak atsegingarriak izan ziran; beragatik oso ibiltaldi gogozkoa izan dute igarotako ori.

Zarrontzalle alderdiak Bergara ikertatu zuala ez dago zer esanik.



Eta biar?

Biar irakurle, guztiok zintzo bete bear degun eginkizuna daukagu.

Amaika aldiz beren eginkizunak zintzo beteak izan dira orain Izarraitzen babesetik deika ari zaizkigunak.

Iñor bada ta azpeitiarrak ortantxe, ai zer mutillak!

Euzkadiko uri geientsunak bezela Zarautzek ere erantzun nai dio dei orri.

Mendigoizale aldra sendoa oñez joateko asmotan da. Beste abertzale talde batzuk belbillak artuko dituzte. Bultzian ere enbarazu egingo dute zarauztarrak. Denbora ona egin dezala eskatzen diogu Jaungoikoari!

Aurrera Jel alde.

Zarautz

El Día, 1932-06-24

Erriko pestak

San Pelaioz oi dira uritxo onetan. Aurtengoak ere gertu ditugu oraintxe, baña iñoiz bezelako zaletasunik ez dago; ezer gutxi aitatzen da beintzat...

Ospatu dezagun gizatasunez zaindariaren eguna.

Nekazariak

Asarre bizian dabilta aldi onetan denboraren aldarte itxusiok ikusita.

Ez belar ontzeko girorik, ez arta jorarako... ezertarako ez baidira auek. Inguruko gauzak sekulako ondarena damakite; ezerk ez duala irabazten beintzat. Noiz onduko ote zaigu?

Udara

Udaran gera irakurle, baña koxkor xamara izango ote dan diote. Ala moduzko izketak ziran lengo batez gure errian.

Emakume bi an ari ziran "altutik" izketan, ta ala zion batak besteari:

–Aurtengo ontan jende gutxi etorriko dan otsak dira, e... ez dakit, ez dakit baña... bildur naiz.

–Aaa, gaixua; jendea etorri Zarautza? Ez dago leku txarrean. Erdaldunik ez omen da geiago bear da... nola etorriko dira ba... "Nacionalista" edo dalako oiek diran bitartean, ez dezu ikusiko emen len bezelako talderik. Txatxu oiek ondatzen dute dana ta.

Olako barrabaskerik bai ote? Baña zein amatzarrek esan du ezer emengo udatarren aurka? Geure erria maitatu, izkuntza. oitura eta gaiñuntzekuak, itz batean euzko izate guzian maitale geranak, amaika olako eraso badegu aspaldi onetan.

Integristen kontuak, irakurle, integristen kontuak!

Ederra kontua!

Jakiñan gañean egongo zera irakurle, Zarautzen gertatu dana. Ixillik edukitzekoa ezta beintzat eta...

Gure zorrontzaleak bapo portatu zaizkigu arraiok ezpaitu!

Izparringiak agertu duten bezela, egun jakin aietan bildu zan Zarauzko udaletxea, arauditzaz erabakiak artzeko.

Geroni antxe giñan da txalotzeko moduko erabakia iruditu zitzaigun gure erri gizonak artu zutena.

Endore jaunak itzaldiak eta ziñegotzien baietzak argi erakusten zuten araudi alde ziralara.

Eta ortarako gizonak izendatu zituzten, beren batzar egunean agertu eta Zarauzko erabakia azalduaz, araudiaren alde jokatzeko.

Gizonak esan det, suplente ta guzti alegia, bada ezpada ere!

Eta eguna iritxi danean, ikusi dezute zer gizatasuna azaldu duan gure "Tradicionalista" bikañak.

Zeruak lur jotzea bezela zeritzaigun ori gertatuko zala.

Ezjakin ziran ziñegotzi batzuk jakin zutenian, indar bereziz beren izen-abizenak eman zituzten, eta... biamunean batzar nagusi bat egitea oldoztu zuten gai orretzaz itzegiteko.

Izparringitan ere iragarki aundiak azaldu ziran eta arratseko zortzi ta erditan gure udaletxean etzan luma baten tokirik.

Etengabeko iskanbilla ta zaratak erabilli zituan bertako jendetzak; oiua ta deadar egiten zuten: ¡Que dimita la mayoria Tradicionalista! ¡¡¡Que dimitan!!!

Bai irakurle igaro dan asteartez Zarauzko udaletxean izan baziña arrituko ziñan gogotik.

Eta azkenik abertzale alderdiak itzezin zuan esanez: Udal Etxeko mandataria, Iruñan araudian aurka autarkia eman zuan, udaletik kanpora ezpazan, beren agintea uzten ezpazuan, berak utziko zutela.

Sei ziran erabaki ori artu zutenak, eta txalo bizitan ordaindu ziran beren itzak; alako batez pekatariak utzi zuan bere agintea.

Alaz guztiz ere jendeak deadar egiten zuan: ¡Abajo los muñecos!

Oraindik aurrera jarraituko duala auzi orrek, ala dago sus-
mua; ez dakigu zer ikusteko gauden. Egundo olakorik!

Itziarren

Antxe giñan agindu genduan bezela. Egualdi bapoa ezpazan ere,
anai-arreba asko besarkatu genduan; beren artean ango idazle
azkarrak diran "Itzartxo", "Zebain", "Atxurra" ta abar...

Igandean ez nuan abesteko aldarte aundirik. Gaxo joan bai-
nitzan!

Urrengoan lasaitasun ohea izango al da. Zorionak danoi.

Zarautz

Euzkadi, 1932-07-08

Deun Pelagi

Gure zaindariaren egunak igaro zaizkigu, irakurle. Denbora ere alakoa zan eta lenengo egunez kanpotar arpegi ezagun asko ikusi genduan.

Eleizkizunetik asita, gañuntzeko kirol-jolas-oituretan gizata-suna nagusi agertu da. Pixkabat zuzenduko bagña..!

Deun Kepa

Erritar guztiak aldegin oi dute egun orretan beren txokoetatik. Aurten ere, ba, irakurle Zarautzen etzan enbarazu aundirik. Eresbatzak Arrasatera aldegin zuan, gañontzeko ostea Orio, Zumaia ta Elkanora banandu zan.

Gu erri-zai, txintxo-txintxo!

Eriotzak

Aurreko astean, irurogeita amasei urte ludian beteta, Jaunari kontu eman zion Lertxunditar Miren Josebe amandreak.

Orobat Zabalatar Koldobika alargunak (Goian bego)

Laguntzen diegu atsekabe garratz onetan beren sendi naiga-betuai. Ain aberkide zintzoak diran Jon ta Josebari.

Irakurle, aita gure bana ildakoen aldez.

Zuzendariari

Joan dan aspaldian gure erriko berririk ez dalata, beragatik ausartu naiz lerro auek idaztera. Lenago inoiz nere idazkiak argitaratu izan dira emen; eta zenbaitenak bezin ederrak ez izan arren pozik irakurri izan dira.

Bein utzi nion ezkerre, ezta ezereen aztarrenik, eta ori lotsagarri derizkiot Zarautz baterako.

Uarra: Basarri adizkide ori, nai dezunian idatzi emen abertzale zintzo guztientzat degulako tokia. Zarautz uriko izparrak bidaldu sarri-sarri, maiz-maiz. Zure olerki bat ere emen det aspaldiz. Argitalduko det egun oneitan-L



Mendilauta aldea

Zarautz

El Día, 1932-07-15

Lanik eza

Alde guztitako negarra, lanik eza! Gure uritxo au, nere ezagueran beintzat, oso goieneko izan da. Lanean ondo ta... gañuntzean zer esan aundirik ez. Erredi edo muebleakin dago emengo izate geientsuna, ta orain atzeraka asi gera irakurle, atzeraka. Batzuk langilleak bialdu dituztela, besteak egunak gutxitu, ez dakigu zer ikusteko gauden.

Arpidea

Sabiñen azi onurakorra iritxi da ... (*ezin irakurri*) zati anaikor ale-tan lanian gogor egiteko erabakiak aberri guztian artu dirala ja-kinde egongo zera irakurle. Soro batzuk arto ereinda ta besteak azari belarrez nardastuta edukitzea itxura txarra litzake danak bereak ditun nekazari batentzat. Batean artoa ta bestean garia eduki lezazke, ta ortarako bear du alako begirapen piska bat.

Aurtengo aldian, belar txarrak artu digu gure senide zarra dan Naparroa. Ondo ondotik ebakita garbitasuna buru gelditu dedin alegindu bear degu. Ori da gure bidea, ori da gure eginkizuna.

Eta jakiña, al dunak al duan bezela alegindu bear. Piska izan-go bada ere ez dezagun ukatu.

Zarauztarrok ere or daukagu Batzokian ingi zuri ederra. Geu-re izen-abizenak emanez bete dezagun piska bat.

Erantzun arren gaurko deiari!

Jaiotza

Manuel Arantzabalen emazteak aurtxo bat izan du. Zorionak.

Eriotza

Gaxoaldi labur baten ondoren il zaigu, Agirrezabalagatar Joseba erritar ezaguna (G. B.). Laguntzen diogu atsekabeen bere sendi-koai.

Zarautz

Euzkadi, 1932-07-17

Arpidea

Nabarra eta Araban euzko abertzaletasuna zabaltzeko iriki duten arpidea emen ere zabalik dago. Orain da garaia ta al dunak al duna eman bezate. Abertzaliak txintxo egin bear degu.

Udaroa

Udaroa txarra zala-ta notin gitxi etorriko zirala batzuk esaten zuten. Baña orain beste gauza batengatik omen dala diote. “Nacionalistakaitik”, irakurle, “nazionalistakaitik”. Geiago erdaldu-nik ez omen da Euskal Errira etorriko. Eleiztar purrukatu orreik izketa xelebria erabiltzen dute...

Euzko jaiak

Iñaki deunaren egunian jai ederrak egingo dituguz. Eleizkizunak, dantzak, abestiak eta txistulariak. Geure Zaindariaren eguna ospatuko degu, bai ederki!

Izpar beltza

Gaxoaldi baten ondoren il da Etxe Beltz basetxeko gizon zarra. Geure tamal agurra sendikoai (Goian bego).

Ala diote

Abertzale-urteurrenaren izenak batzen omen dabiltz erregeza-liak. Datorren illean “Tente-Potente” erregea ekarriko dute-ta... Kontuz ibili, abertzaliak!

Uarra: Txarto ibiliko gera erregezale orreikaz. Erkaltzaleak baño dei-garriaguak dira. L. [Luaxeta]

Zarautz

El Día, 1932-07-21

İnoiz lerrorik gogoz irakurri izan badet juandan igandeko zuriak aitortu bear. "Euskal Orria", Euskal Orri? Bai, irakurle, motel xamarra İnoiz nabaitu izan badegu ere, etzan Luzearren erruz, berak garbi agertzen duan bezela. Zeure poza izugarria izan dala diozu; nik nabaitzen dedana ere zerbait badala derizkiot. Ain gogozkua ta begiko degun gipuzkoar izparringi sendoa dan *El Día*-k orri bat euskerarentzat izatea.

Eta idazle lagunak dei bat zueri ere: Ikusi dezute zuzendarian asmoak zer diran; bostik bein badare egokitasunez alako zerbait euskeran alde egitea dio. Egoki bear bada ni ezin sartuko naiz ezertan baİa... Uzturre, Igerra, Iturri txiki, Aixerixa, Otarra, Ixaka, Aingeru, Zeleta, Aberri, Maitxo, Abaaska, Anastaxio, Atarrene (ta gogoratzen ez naizen beste asko), orain da garaia. Ekin deio-gun bero bero gure oiİarri sendoa dan izkuntzaren alde, bera dalako askatasuna oso osorik biurtuko diguna. Al dunak al duna egin ezkeru zer esanik ez dalata, gu ere saiatzeko asmotan gera.

El Día-n irakurle zeratenari, arren eskatzen dizutet etzaiztela gelditu eguneroko orriari begiratu bat eman gabe.

Aurrera euskeran alde!



Igandean Lasarten

Bertako batzokiaren zabalkundea zalata, sekulako jendetza juan giİan emendik. Ondo irabaziak ziran da, gogoz txalotu giİun gure izlari jatorrak.



Zer da aurtengo au?

Aurreko egunez egin zuan arriak galera aundiak utzi dizkigu, emengo nekazariari. Bolara ontan ujalak ere ia egunero baditugu. Ordeka auetako soro ta zelaiak itxaso daude. Baİa... zer da aurtengo au?

Zarautz

El Día, 1932-08-06

Iñaki Deuna

Aundikiro ospatu degu zarauztarrok zaindariaren eguna.

Iragartzen genduan lez, goizeko zortzi ta erditan jaupa “meza” izan genduan Iñurritzako baselizatxoan.

Izugarria zan bertara bildu zan jendetza; eleiz guztia bete bete egin baizan. Jauna ere geientsunak bertan artu genduan.

Batzuk mai donean belaunikatzen ziran bitartean, gañon-zeko abertzale taldeak gogoz abestu genduan: “Ogi zerutik etorria”.

Eta bukaeran (zer esanik ez) irakaslearen izkiaz guztiok zutiñik “Iñaki” lertzerañoko indarra emanaz abestu genduala.

Geure otoitz ixilletan abestitan bezelaxe eskatzen genion: “Zain zazu, Jaungoikua, zain zazu Lege Zarra. Lagun zaiguzu orain da eriotzeko orduan. Alaxen”.

Naste Borraste

Izen ezagutu ori damakiten ertilari azkarrak, il onen 13an berriro aurkeztuko dira erriaren aurrean.

Cinema deritzaion pelotalekuan izango da ikuskizun eder ori.

Gaueko amaiketean emango zaio asiera, ta bertan batzen dan dirua Errukietxerako izango da.

Gure izkuntza ta oituran alde aspertu gabe lanean ari diran zuzendari Arroita jauregi, Mujika ta Etxabe andereñuari lenguen gañetik gurenda berri bat izan dezatela opa diegu.

Udara

Aurreko aldi ortan izan diran denbora eguzkitsu oietan ederki nabarmendu da Zarautzen jende puxka bat badagola.

Iñoiz aña ez dala ezagutzen ikusten degu, baña lantu geiegi ere ezin joko degu. Kontxe, kontxe, naziolanista auek ezpalira...

Arpidea

Nabarra ta Araba aldeko arpideari ederki erantzun diote emengo abertzaliak.

Asko edo gutxi, zerbait eskua luzatu gabekorik ez da beintzat asko izango.

Garaia irixtian saiatzen dakigula alegia.

Aurrera kupira gabe, bazter guztiak abertzaletasunez kixkaldu artian!

Erriko pestak

Ama Birjiñak alegia urrian ditugula esan naia. Aurten itxura antzekuak egiteko asmuak dirala entzun degu.

“Euskal orri” onetan emango det guztien berri, agerkaian bidez.

Badakizu konpañeo, bitartian pazientzia.

“Euzko”

Bizkaitik ertera izan duan asteroko berria eskuratu degu.

Oso apain da egokia iruditu zaigu, euskera txukun da ederrian dator.

Jaungoikoa ta Lege Zarra bere ikurritz bakartzat aitortzen du.

Zorionak bere zuzendari, idazle ta irakurle guztiai.

Luzear-en itzak berritzen ditut nik ere: Ongi etorri abertzale sorora.

Zarautz

Euzkadi, 1932-08-07

Iñaki deunaren eguna oso ederki ospatu degu. Iñurritzako baso-txonoan jaupa izan genduan. Zarauzko abertzale zintzuak aratu ziran. Jaunartu genduan geienok.

Guziak abestu genduan pozik:

Ogi zerutik
etorrija...

gure Irakasliaren izkiz. Geure otoitzetan eskatu genduan, bai, barrutik eskatu ere:

Zain-zazu Jaun-Goikua
Zain-zazu Lagi-Zarra...

Naste Borraste

Izen au duten antzezlarriak illa onen 13gnean berriz errijan agertuko dira. Geure euzko oitura ta izatearen alde zintzoro dabilzaten Muxika, Arroitagauregi eta Etxaberi gurenda berri bat opa diegu.

Gudaltzatik

Emen degu egun batzuk igarotzen etorrita Amutxegitar Imanol. Baita ere Erremuin basetxeko gaztia. Atsegingarri izan bezaie bi-joi egotaldia.

Bai, baña...

Ederki nabarmendu dira egun eder oneitan kanpotarrak. Obeto baña abertzaliak ezpalegoz.

Arpidea

Nabarra eta Araba aldezko arpidea poliki dua aurrera. Abertza-leak, emon zazute.

Jaiak

Laster ditugu erriko jaiak. Zarautz-ondartzara orduan egingo degu ikertaldi bat. Bitartean pazientzia.

Euzko

Larunbatean jaso genuen *Euzko* asteroko berria. Ederki egiña degu. Zorionak egilliai.

Zarautz

El Día, 1932-08-17

Emengo Euzko Gaztediak antolatuta dagonillaren 21garren egunean jai aberkoi bat izango da Urdaneta ballaran. Ona emen daren berria:

Amarretan jaupa "meza" abestua.

Amaika ta erditan pelota-jokua.

Ordubatean, bazkaria.

Arratsaldean, lauretan, ezpatadantzarien saioa.

Ondoren bertsolariak eta itzaldi aberkoia. Goien goieneko izlari batek itzegingo du.

Zarauztarrak, Abertzaleak, illaren 22an Urdanetara guztiok!

Zarautz

El Día, 1932-08-19

Naste Borraste

Izen ospatsu orrekin agertzen diran ertilari trebeak, igaro dan larunbatez aurkeztu ziran Cinema pelotalekuan arkitzen zan ostetza ugariaren pozgarri.

Itxaropena ere bagenduan eta oraingo saio ortan ere gizon azaldu zaizkigu gure antzezleri bikañak.

Bertako entzule guzien gogoak betetzera inguratu zan abeslari zoliagatik zer esan?

Nere ustez, ontan ez dezu buru austerik, Laborda ospatsua zala esan ezkeru guztia egiña dagota.

Au ta ori ugariaz luzatu gabe, berriro ere gurenda aundi bat izan dala esanda bukatzen det. Zorionak.

Azaldu ziñatelako
bear zan moduan,
atso zar bat gustora
zan nere onduan.
Etzan oso atsegin
gu giñan lekuan.
Amaika txalo eder
jua bagenduan.

Gaztedi bikain askua
txit alaiak berez,
ezin ordaindu leizke
zillar eta urrez.
Atsuari esan nion
belarrira parrez:
Oriek azpiratzen
ezta oso errez.

Gure jaiak

Alai eta paketsu igaro ditugu. Oitura ez galtzeagatik edo... aurtengo ontan ere izan degu jendea. Gañontzean zer esango degu, dantza ta soñu ugari izan dala.

Bigarren egunean sekulako estropadak izan giñuzen. Erritarak lau txalupa ziran, launa gizekin. Estropada ederrak izango dira, baña... juan dan jaiekua bezin politik ezta errez. Abia bizi batez irten ziran danak, eta oraintxe bide pixka bat igaro zutenian, danak adiskideak izan da... jakiña, alkar besarkatu bear nunbait. Alkarri bisitak egiñez bapo konpondu ziran. Egundo olakorik! Datorren igandekoa ikusteko pozaz urtzen daude zauruarrak.

Gero, lagun banakakuak jokatu zuten. Iru txalupa aurkeztu ziran: Orio, San Juan, Getari. Lenengo saria oriotarrak eramanzuan. Bigarrena, San Juanek, alde aundirik ezpazuan ere. Joko estuak izango dira, baña, Pasaik eta Getarik zutena baño larriagorik gaitz derizkiot. An ziran kontuak!

Eta olaxe, oiek guztiak igarota, batzuk dantzatu, besteak begira egon jan, edan da abar, bapo igaro ditugu.

Abertzaleak, eup!

Datorren igandean Urdanetara guztiok! Bertan egingo diran jaiak ikusgarriak izango dira: Meza abestua, pelotariak, dantzariak, bertsolariak eta itzaldi aberkoia. Beraz irakurle, datorren igandean Urdaketako ballara paketsuan da zure tokia.

Zarautz

El Día, 1932-08-25

Estropadak

Aurreko estropadan txartzat botatako iru txalupetatik bi baka-
rrak aurkeztu ziran igaro dan igandez berriro jokatzeko.

Oso ikuskizun ederra izan zan, ala erabaki zuan beintzat be-
gira zegon jendetza izugarriak.

Azkenik gure adiskide ta aberkide zintzoentzat gelditu zan bi-
garren saria. Zuek etxerako!

Ondoren lagun banakakoak ziran, Orio ta San Juan. Aurre-
ko estropadan bañore alde aundiagoa kendu zion oriotarrak.

Enparantza nagusian zegoan jendetza izugarriaren buruz
gain beretzat gelditu zan ikurriñak ega egin ondoren, an eraman
zuan bere sariakin batera.

Pelotariak

Arratsaldeko laurak alde artan Cinema pelotalekura urbildu
giñan.

Desapioko joko baizan!

Bojas eta Txortena, Ulaziaren aurka. Lagun bakarrak arru-
nian irabazi zuan; iru tantokin gelditu zan bikotxa. Urtearen gai-
tza, irakurle, urtearen gaitza!

Ondoren bi zarauztarrek jokatu zuten bi getariarren aurka.

Oso jokaldi atsegiña izan zan eta azkenik erritarrak gelditu
ziran nagusi.

Eriotzak

Igaro dan ostegunez eman zuan azken arnasa: Zunzunegitar Jo-
seba abade atsegin eta leialak. Orobat Agirrezabaltar Kleta ema-
kume ezagunak.

Zuzuarregitar Kepa "Pedro" ziñegotziari lau urteko alabatxo

bat zeruruntz egatu zaio. Gure samin agurra utsunea gelditu zaion sendi naigabetuari.

Irakurle, aita gure bana ildakoen alde. Goian beude.

Badijoaz

Jaiak igarota udaldiari azkena ematen diote onera eltzen diran sendi askok.

Uztak utsegin zuan eta udara motxa, ta orain batzuk badijoaz...

Don Bitor-en omenez

Gazte xamarra izaki ta ez nuan ezagutu. Bera ezagutu ez arren, bere lan batzuk bai ordea. Bikañak alare!

Datorren igandean Zaldibarren bere omenezko jaiak.

Euskeraz idazteko luma eskutan artzen degunak ez genduke gelditu bear bertara juan gabe. Aren zoriz ari baigera asko! Nero-ni ere gogoz an izango naiz soñez ezin badare.

Beste askorenakin batera an dijoakio nere otoitz ixilla, eta irakurle zintzoak, donokiaren erdian izan dezala bere tokia.

Bertan bilduko diran idazle anai-arrebai nere zorion agurra.

Abertzaleak!

Urdanetako jaiak igaro dan iganderako iragartzen giñun, baña... emengo pestak nola baiziran, zortzi egunez atzeratzea oldoztu da.

Beraz datorren igandean izango dira:

Jaupa meza abestua, pelotariak, ezpatadantzariak, bertsolariak ta itzaldi aberkoiak.

Zarauztarrak, igandean Urdanetara danok!

Izkirimiria

Gure kanposantuko zulogillearengana urreratu omen zan lengoan emengo aundiki edo aberats bat, eta ala galdetu omen zion:

-Baña... emen illak ez al zaitue bildurtzen?

–Jauna: illengana bildur gutxi det nik, biziak bildurtzen naute, biziak!



Herriaren ikuspegia

Zarautz

El Día, 1932-09-07

Lenguak antxiña ezpaziran ere berriro pestetan gera, irakurle. Udara denbora edo aldian pestazaleak izaki zarautzarrak. Zoritarrez goñuntzekoi egunetan euskaltzaletasun aundirik nabaitzen ezpadegu ere, oraingoa geurea degu ta Euskal Pesta gañera. Poztu gaitean bada odol berdiña damakigun euskaldun zarautzarrak, eta ospatu dezagun aundikiro.

Ona emen jaien berria:

Bederatzigarren euzko erromeria, 1932garrengo irailaren bederatzian:

Goizeko zazpiretan, txistularien goizeresia.

Bederatzitan: Prantziskotarren eleizan meza nagusi ederra.

Amaikaterditan: Txorieritarran etorrera.

Amabitan: Euzko edesti joaldia.

Lauretan: Gurdi aundi, txiki ta gaiñontzekoen igaropena.

Seiretan: Iñurritzako zelaian euzko erromeria.

Zortziretan: Ermitako ezkilak jo bezin laixter, irrintzilari, txistulari, ta abar erri aldera abiatuko dira.

Amarretan euzko erromeriak jarraituko du.

Gurdi apainduen sariak:

Lenengoa: 300 laurleko.

Bigarrena: 200 laurleko.

Irugarrena: 150 laurleko.

Oarra

Aurkezten diran gurdiak sarituak izateko ainbat irabazi ez duala baderitzo epaikari batzari, onek sari bat edo geiago eman gabe utzi ditzake.

Eriotzak

Igaro dan astean il zan Zendoyatar Eulalia, Izeta basetxeko neskatxa gaztea, amaseigarren urtean zijualarik.

Orobat Gazagatar Eskarne, Zarraoaren alarguna. Goian beude.

Laguntzen diogu atsekabeen beren sendi naigabetuari. Irakurle, aita gure bana ildakuen aldez.

Igandez Usurbilen

Bertako jai aberkoitara zarauztarra erruz inguratu zan. Gu ere an giñan goizetik joanda. Aruntza bultzian goazela "Aberri" topo alajaña! Eguerdian amaiketako eman zigun bi illabete barru ezkontzen dalata.

Balitekek, baña, ez nauk pio. Zer derizkiozu, Iturralde?

Gañuntzean gustora etxeratu zan jendea egun atsegiña izan zalata.

Zarautz

El Día, 1932-09-24

Utsaren urrengo auzi batengatik espetxeratuta egon diran gure aberkide zintzo Solaberrietatar Joseba, Ayerditar Joseba ta Arrutitar Ugutz berriro geure artean ditugu.

Aberriangatik izan dira beren eramankizun astunak, eta aberriari abetzatzaleak lagundu bear. Jel-Batzokian ezarrita dago ingitxo bat beren gastu edo goraberetan laguntzeko.

Beraz, aberkide, lagun daiogun al degunok al degun eran, biar edo etzi geu gerta gaitezke ta.

Zarautz

El Día, 1932-09-30 / Euzkadi, 1932-10-01

Itzaldi aberkoiak

Iragartzen genduan bezela, igaro dan larunbatez izan giñuzen. Zubia Arregi anderea ta Ernandorena ospatsua izlari.

Emakume gartsuak ekin dio lenengo. Agur gozo ta maitakor bat dakarki gure izkuntza berdigabeen.

Orain arte berak izan duan asmo edo ideak etzion agintzen jatorrizko ele maittegarrian mintzatzerik; euskeraz itzegiterik. Españazale purrukaturia izan baida! Eta bereala ekin dio erderaz. Gure azoka plaza, plaza aundia ta ederra izan arren, bapo estalita arkitzen zan. Milla motetako oatea edo jendea izan arren, Tabiratar emekume trebea mintzatzen zan denboran iñungo eleizetan baño ixiltasun da arreta ohea zedukan bertara bildu zan ostetza ugariak. Ura baizan itzegitea!

Dalako “Margarita” oieri ere erakusbide ederrik eman zien. Bera zer da nolakoa izan dan argiro azaldu zuan. Iñori miñik txikiena eman gabetanik, Euzko Alderdi Jeltzalea aipatu eta goieneko mallan jarri zuan, eta Zarauzko erriari dei bizi aberkoi bat egin zion Euzko Alderdi Jeltzalera etortzeko esanaz. Gure irakasle zanari maitasunezko abesti gozo bat eskeiñiaz, txalo ta gora artean bukatu zuan bere itzaldi ederra.

Berari entzutera joan giñan guztiok abertzaletasunaren irudi berezi bat dala ao batez aitortu genduan. Artu berriro ere idazle txiro onen eskerrik sutsuenak.

Ondoren Ernandorena, Donostiko Euzko Gaztediko lendakariak itza. Eletari trebe onek, itzaldi bakoitzean alako sarrera edo aberri-min bat sartzen du entzule guztien artean, ta igaro dan larunbatez ere orixe egin zuan.

Lenengo itzetan ala zion: “Aberkideak! Alde batera poza ta bestera lotsa barrundatzen det nigan. Lotsa neregan “Margarita” onek egin duan itzaldiaren ondoren nerea txiroa eta lotsagarria

izango dalako. Poza berriz, onenbeste euskaldun ikusita gutxia-gotako ez dalako”.

Ezer antolatu gabe zala ta negarra jo zigun. Lantua ugari! Bein asi zanean nork ixildu ura..! Arrazoi sakon da bikaiñez ornitua zan bere saio guztia. Irlandako ibillerak aitatu zituan da adibide ederrak jarri ere bai. Tartetan bezela azkenean ere txalo burrunda izugarria entzun zuan. Bejondaizula.

Zorionak guztioi.

Igandez Artadin

An nintzan ni ere bertso batzuk abestera joanda. Zarauztar mendigoizaleak ere aldra polita osatu ziran gain artara igotzeko. Espetxetik irten diranean aize pixkabat komeni nunbait eta oinkada bizian bertaratu ziran Solaberrietatar Joseba ta Ayerditar Joseba abertzale zintzoak. Abejondaizutela!

Eta jakiña, danen aurretik Astiaxu buruzagi edo kapitan. Arraiotan, ez ago gozua! Itzaldi ederrak entzun giñuzen Ira andereño ta Urreta ospatsuaren autik. Gogoz txalotuak izan ziran. Azkenik Euzko Abendaren ereserkia abestu zan.

Gañuntzeko dantzari, gorulari ta abeslariak goi artan ala ikus-tea arrigarria zan benetan. Zorionak jai orren eratzaille Txabarri ta lagundiari.

Zarautz

El Día, 1932-11-12

Idazleak, entzun!

Atsedenaldi polit baten ondoren emen general berriz ere gure uri apain ontako zerbait berri eman naiez.

Ezin etsi gogorra degu izan ere aberri bakarraren zoriona len-baitlen ikusi naiez lerro batzuk idaztera oiturik gaudenok.

Mota askotako langilleak oporketa bidez badabiltza ere, guk euskal idazleak, olako asmoak urrutira uxatu bear ditugu. Lanerako denborak ditugulako. Nagikeriak baztertuta ia bada egundo baño sutsuago jokatzen geran. Al dunak al duna egin ezker ez dago zer esanik. Ekin bada anai-arreba biotzekoak aitatutako lanean, zuzenbidez dabillena zuzentasunez ordaintzen da-ta. Geure egille ta gaizkatzallea, zeru lurren jaun da jabea gogoan degularik ta bearra zaigun indarra berari eskaturik, aberri bakarraren zoriona al dan lasterren ikusi dezagun.

Lanik eza

Alde guztitako negarra, irakurle. Olakorik asko oldoztu pentsatu gabe ibilli izan bagera ere, pixkabanaka pixkabanaka zorigaitz ori iritxi da txoko ontaraño. Iru eguneko lanean ari dira ola edo fabrika batzuk. Zarautzen garrantzikoena jotzen genduan "Beristain da lagundiak" illaren 19an tallerra ixteko erabakia artu dute. Tamalgarria!

Irurogeita amar bat langille kale gorrian gelditzen dira. Beste batzuekin ere bildur gera.

Antzezlariak

Berandutxo izan arren aitatu gabe ezin utzi. Deunoro egunean (Santu guztienean) gure antzezlari trebeak ikusteko era izan genduan. "Amets gozoak" ta "Itziartxo" antzeztu zituzten. Emakumien

areto ederra etzan diña bertara bildu zan ostetza jendetza izugarriari bear zan patxara emateko. Beren izenakin ziur edo seguru ez nagolako ezin aitatu nezazke asko. Baña esan biar det Alberdi anai biak lanean ikusi zituana arriturik etxeratuko zala. Bapo Joxe, zuek etxerako!

Emakumeak egundo ez bezela agertu zitzaizkigun; Izeta, Su-
biñas ta gañontzekoari zorionik maitakorrena berriro ere. Eta or-
duko apaiz jaunari txapela erantziko diot urrengoan.

Eta zera ia aztu zitzaidan. Urrengoan Astiaxu aterako dala inpernuko etsai jantzita.

Jaiotza

Arregitar Diburzio abertzale zintzoaren emazteak aurtxo bat izan du. Miren Abeline euskal izen apañagaz ugutzatu (bataiatu) dute. Zorionak.

Gudaritzara

Santanderko urira joan da gudaritza betetzera gure adiskide zintzo ta abertzale sutsua dan Arregitar Txomin gaztea.

Orren morrontza astunetik osasun onez lenbaitlen etxeratzea nai degu.

Gaugurtzalleak

Berriro indartzen dijoaz. Azkenaldi ontan motel xamar arkitzen ziran. Igaro dan larunbatez animen aldeko gau eleizkizunean berri asko ikusi ziran. Jarrai dezagun al degun zintzoen. Izan gaitetzen Kristoren gudari trebeak.

Euzko Etxeako Artezkari Batzari

Askok garrantzizkotzat artuko ezbalu ere, jaramon edo kaso egi-
teko gauza derizkiot esatera nuana. Alegia larunbat arratsetan
Amayur izparringia saltzen edukitzen dan bezela ezin eduki ote
leizkian *Argia* ta *Euzko* euskal izparringiak. Mai gañean *Argia* bat

egoten dan bezela ekarri ogei edo ogeita amar, eta eskeñi danari, erosi nai duanak erosi, ta bestela... len añean.

Ogei geiegi badira, amabost jarri.

Zergatik, tamalgarria da basarritar danak arrapazka ibiltzen duten irakurgaia abertzalien laurdenak ez dutela artzen jakitea.

Euzko izparringia abertzalea oraindik batzokian ez det arkitu. Jakin bear deguna da euskera dala gure askatasun giltza. Zabaldu dezagun premia dago-ta.

Zarautz

El Día, 1932-11-17

Igaro dan igandea ere antzerki eguna genduan, “Meza berria” ta “Arantza” antzeturik. Gure ertilarri trebeak oitura duten bezela, lan ortarako duten egokitasun berezia argiro azaldu zuten, eta azkenik, jakiña, txalotuak ere txalotuak izan ziran. Entzuten nagonez, iñoiz ez bezelako arreta omen dabil aurten gaztediaren artean. Ikuskizunak zintzo ta antzerki-lan oriek aurrera oso aurrera erten ditezen gogo sendoz omen dira guztiak. Jarrai bulartsu Jel aldez.

Gaztetxoan jaia

Ta zer esan gaur ume diranak aberri miñez osatuta, biarko gizon kementsu ta bulartsuen igali edo frutuen zai dauden andereño lirañagatik?

Ez det gaur gai orretzaz mintzatzeko eguna, baña luzaro baño len iritxiko da.

Emakume A. Batzan aretoan datorren iganderako ikusgarritz-ko jaialdiak antolatzen dira. Ona emen danen berria:

Arratsaldeko 4tan: Lenengo “Abestiyak” gaztetxo sail bat abeslari.

Ondoren, Zinkunegitar Andoniren agurra.

Antzerkia, “Axentxi ta Kontxexi” alkar izketa.

Gero “Amonaren esanak” bakar izketa. Olerki esateak eta dantzaldia. Euzko Abendaren ereserkia abesturik amaituko da.

Orra or ikuskizunik asko. Orra or arratsaldearen ederra. Gaztetxoak! Igandean E. A. Batzan aretora guztiok. Gurasoak, bialdu zuen seme-alabatxuak aitatutako tokira, aberri bakarra ezaguturik bearrekoa zaien zuzenbidea artu dezaten. Ooo, arratsaldearen ederra!

Santa Marina

Lengo baselitxo ermitaxoa apurtu bazitzaion ere badu berri berria. Nolakoa ordea? Berria bakarrik ez, ikusgarria ere bai.

Bukaeran nola baidauten, bere askundea aundikiro ospatzea erabaki dute kale bereko bizilagunak. Ona emen jaien berria:

Illaren 21a astelenez: Goizeko 7tan meza ta jaunartzea eleiz nagusian Parrokian.

Bederatzitan, ermitatxoaren onespina.

Amarretan, jaupa meza nagusia; Santa Marina kaleko iru apai-zek artuko dute meza orren ardura...

Amaiketari, jakiña, amaiketakoa, Hotel La Perla-ko etxeko andre onbidetsuak emanda.

Illunabarrean, ttunttuna ta gañontzeko soñuak.

Zorionak ainbeste lanen ordañez ikusgarrizko ermitatxo ori begi guztien pozgarri bere bukaera dualako. Zorionak berriro ere.

Zarautz

El Día, 1932-11-22

Askizuko jaia

Iragarrita zegoan bezela, igarotako igandez ziran ballaratxo ortako jaialdi aberkoiak. Alako uste aundirik ezpagenduan ere, Getariko abertzalien dei ugarien bidez bertaratu giñan.

Denboraren aldaketa itxusienetakoa zan, eta jaiari atzerako aundia eman zion. Alaz guziz ere, ta oitura ez galtzeagatik, elizkizun eder batzuzagaz asiera. Zarautzar seme zintzo dan Larrañagatar Iñaki apaiz jaun agurgarria meza emalle. Getariko gaztedia abeslari. Eleiz unea ederretan ere ederra izan zan.

Ori bukatuta, zerbaitek jarraitu bear. Santi Errota bere auspoakin baztar alaitzalle. Ondoren, jakiña, bazkaria. Noiz bukatu zan etzekiala zaparrada ikaragarria kanpo aldetik, eta barrenen arpegi pozgarriak mai lanean sendo. Ortan gaituk ba mutillak!

Soñu, bertso ta itzaldi, danetik osatu giñan. Altzetak ere egin baizigun saioa. Ebia ta ebia eten gabe. Jende mordosko polita ala ere. Kanpo girorik ez itza zuzentzeko. Zimitarioan asi bear izan genduan. Neronen aurkezpen txiroaren ondoren, jaiki da "Ira" idazle bezin izlari trebea dan andereñoa. Zer esan beratzaz? Toki askotxo artzen du ortara asita. Sarrera gogorra eman zuala an bildutako euzko biotzetan, eta ondoren txalo beroz ordaindua izan zala.

Altzeta ospatsuak itza. Berea jakiña da, ta zorabio batez utzi zuan an bildutako jendetza. Abejondaiola! Igandeko bere itzaldiak biotz ukuitze gogorrak zituan. Arrantzale ta basarritarrak zer bi-detatik ta nola joka bear duten aditzera emanda utzi zituan.

Azkenik... betikoa, ebia ugari. Lastaikoak piztuta Getari bi-dean.

Zorionak berriro ere, izlari ta jai orren antolatzaile ta gañontzekoari.

Gaztetxuen jaia

Zoragarria benetan. Zein baño zein trebeago. Umetatik erakutsi dute beren kemen sendoa. Itzaldi, olerki esate, dantzaldi, alkarriketa ta gañontzekoak bertara bildutako guztiaren arrigarri. Zorionak ainbeste eruapen edo pazientzi ondoren aberriaren itxaropen berezi diran landareak lan ortara jarri dituzuten zuzendari prestuari.

Irakaslearen urteurrena

Arana Goiritar Sabiñen 29garren urtebetzea dalata Zarauzko Euzko Etxeak antolatzen duana. Goizeko 7an jaupa meza ixilla Prantziskotarren txadonan (Guztiok dakizuten lez ostiralean izango da). Arratseko 9tan E.A. Batzan aretoan, tolosar idazle trebe dan Leundatar Paustak itzegingo du irakaslearen bizikeragaz. Dei dagizuet biotz biotzez arren eldu zaitezela zintzo aitatutako tokira.

Antzezlariak

Datorren igandean ere badegu denbora nun igaro. Neguko aldiari jarraituaz emango dan antzekizuna: Arratsaldeko sei ta erditan E. A. Batzan aretoan: "Morroi jatorra", "Negarrez igaro zan atsua" ta "Etxietan" antzeztuko dira.

Baña jaiak antolatzea bakarrik ezta naikoa noski, berangana-ko zaletasuna bear bearra dalako. Nere ustez, musa ta sagardotegia geitxo maitatzen ditugu. Jeltzale Alderdiak antolatzen duana jeltzaleak bete bear dualako.

Beste bidetara ezkeronora goaz irakurle?

Zuek erantzuna.

Zarautz

El Día, 1932-12-01

Aurrez aditzera ematen nuen bezela, Sabiñen gogo aldezko eleizkizun da gaiñuntzeko jaialdiak aundikiro ospatu ditugu.

Igaro dan ostiralez oi txuriak garaian bazterturik bide zabalak betean Prantziskotarren eleizaruntz egin zuan zarauztar abertzale jendeak. Eta jakiña, gizon da emakume zintzoz eleiz barrunbea bete bete egin zitzaigun.

Gero, arratseko 9tan, Leundatar Pausta tolosar idazle trebearean gain zegon mintzaldia. Zinkunegitar Josebaren aurkezpen ondoren, jaiki da aitaturtako gazte bulartsua ta ekin dio lanari. "Urtebete oker aundi gabe da -dio berak- zarauztarrari itza zuzentzeko era izan nuela. Orduan agur saminkorra ta berri nai-gabetsu bat nekarkin Tolosa zarretik. Atzerritar etsai baten ausardiz euskaldun abertzale bat Tolosako kale gorrian odol ustu zaneko berri ituna.

Gaur berriz Zarautzen. Baña orduan lez, berri itun da naigabetsuakin Españatar agintarien aginte arrazoi gabekoen bidez, Tolosako espetxean arkitzen diran Euzko Langillien berri samin-korrakin".

Egunari zegokion eran, Sabiñen bizitza agertu ondoren, erriaren biotza ukuitzen zuan itzaldi sendo ta sakona bukatu zuan. E. Abertzalien areto ederra bete bete eginda gaiñezka zegoan. "Uzturre" idazle azkarra ere an agurtu genduan bere lagunakin. Zorionak guztiori.

Igandean, zortzi ta erditan, meza abestua eleiz nagusian.

Aberkide asko bertaratu zan, da gutxitan bezelako eleizkizuna ikusi genduan.

Igandeko batzarra

Euzkadi Buru Batzarran agindupean, eguardiko amaiketan, aberkide talde bat bildu zan Euzko Etxean. Zinkunegitar Josebak eral-

guntza berriko ingi edo papelak irakurri ondoren, autarkitara erabaki zan. Zarautzek izendatu ditunak auek dira:

Aldun: Beristaindar Jakoba

Ordeko: Zinkunegitar Joseba jauna.

Berri pozgarria

Igaro dan ostegunez berri pozgarri bat jaso genduan. Zarauzko lan eskasiari gogor egiteko ta gaur geldi dauden langilleak irabazian jartzeko, "Comisión Gestora" k 200.000 laurleko utzi ditu gure erriaren gain. Gogoz pozten gaitu.

Antzerki-jaia

Gure antzezleriak ez dute geldi unerik. Oiturari jarraituaz, igaro dan igandez ere antzokiratu ziran gure ertilariak.

"Negarrez igaro zan atsua", "Morroi jatorra" antzeztu ziran.

"Amonaren esanak" bakar izketa Loyolatar Agurtzane ume-txoaren gain egon zan. Au bai degula artista.

"Ardoaren indarra" ta "Kattalin" bakar izketak Ayerditar Iñakiren gain egon ziran. Bi ume auek Emakumien areto ederra betetzen zuan jendetza arriturik utzi zuten. Guztientzat txalo ugariak izan ziran. Zorionak.

Zarautz

Euzkadi, 1932-12-14

Euzko Langilleak

Langille arazoa dala bide, zer esanik asko badabil baztarretan. Oraingo ekaitzaldi gogor onek gure aberri maite au ere illuntasun eta naigaberik aundienean menderatua dauka. “Beristain ta Lagundia” Zarautzen garrantzirik aundiena ematen zitzaion ola edo fabrika bere ate zabalak isteraño beartu da.

Bera dala bide, irurogeita amar bat langille kale gorrian gelditu dira. Bertan ari ziran 32 euzko langillek, kaleko ibilleragaz ezer ez dagola oldozturik, beren kontu astea erabaki dute.

Irakurle biotzeko ori jakiñean jarri nai zaitugu, aitatu ditudan euzko beso jatorri bereziko oriek lanaren zai daudela. Euzkadiko beste erkiari lez, zuri Bizkai-anai sendo zeran orri itxas ertzeko uritxo paketsu ontatik deadarka gatozkizu. Eta zu irakurle anai euskaldun zeran ori, ezeren paltaz gertatuko baziña, zuzendu zait Zarauzko euzko langilliengana.

Lerro auen bidez adierazten dizut diodan guzti guztia zabaldu dezazula zure lagunetara, ta iñoiz edo bein iñor erredi edo muelle on ta modu onekoen zale bada, agindu zaiozula aitaturtako tokira.

Eleizkizunak

Miren Neskutsaren bederatziurren da gañontzeko eleizkizunak aundikiro ospatu dira. Aita Pantzekatarren eleizan iñoiz ez bezelako ostetza ikusi da.

Eriotzak

Igarotako astean iru eriotz izan dira. Ludiko izaera bukatu dutenak auek dira: Garrastazutar Kazinda, gure lagun gogozko ta aberkide zintzo dan Lander-en osaba, Erramontxo izenez ezagutzen zan aitonarena, ta Jesusta basetxeko amonarena. Irakurle biotzekoak, aita gure bana beren gogo alde. Goian bego.

Osakuntzak

Osakuntzaren bearrez Donostian arkitzen dira Izetatar Miren, E.A. Batzako bazkide dana, ta Paskueltxo basetxeko mutil gazte euzko langillea. Al dan lasterren emen ikustea da gure gogoia.

Euskal izena

Berazadi basetxean aurtxo bat geiago badute. Ugutzatzerakoan, Miren Barbare euskal izen ederra ezarri diote. Zorionak beren euskaltzaletasun bizia argiro azaldu duten guraso zintzoari.



Getaria bidea

Langilleak

El Día, 1932-12-17

Langille arazoa dala bide, zer esanik asko badabil baztarretan. Oraingo ekaitz gogor onek gure Gipuzkoa gaxo au ere naigabeturik uzten da.

Eta Zarautz gure txoko kutun au mixeri bizi bizian. “Beristain da Lagundia”n taller ixtea dala ta, ogeita amabi euzko langillek kale gorrian gelditzeko zoria izan dute.

Baña kaleko egoeragaz ezer ez dagola ezaguturik beren kontu asteko erabakia artu dute; ta gaur alaxen ari dira. 32 euzko beso sendo dira lan zai daudenak. Irakurle zintzo ori jakiñean utzi nai zaitugu, iñoiz edo bein erredi edo mueble on ta merke batzugas beartuko baziña, zuzendu zaitezela Zarauzko euzko langilliengana, ta ase gabez etzera geldituko.

Lerro auen bidez biotz biotzera itzegiten dizut, esanez zabal dezazula zure lagun ta adiskidetara emen diodan guztia, ta iñori orla moduzko konturik entzungo baziñu, agindu zaiozula esandako tokira.

Eleizkizunak

Miren Neskutsaren bederatziurren da gañontzeko eleizkizun ederak aurten iñoiz ez bezelako aunditasunez ospatu dira.

Eriotzak

Igaro dan astean iru eriotz izan dira. Ludiko izaera ezerezez bukatu dutenak ona emen: Garrastazutar Kazinto, Lander gure lagun gogozko ta aberkide zintzoren osaba. Roman Mujika *Erramuntxo* izenez ezagutzen zana, ta Jesusta basetxeko amona. Irakurle, otoi beren gogo alde. Goian bego.

Naskaldia

Osakuntza bearrez Donostian arkitzen dira, Izetatar Miren E.A. Batzako bazkide zintzo dana, ta Paskueltxo baserriko euzko langille gaztea. Lenbaitlen emen ikustea da gure gogoia.

–Euzko Gaztediko kiroltzaleak antolatutako pelota jokoak asi dira: Lengo igandez zan lenengoa ta ostetza aundia ikusi zan.

–Igaro dan larunbatez Ariztimuño ta Onaindia jaun agurgarrien itza entzutera berezibil bat bete jende joan zan Donostira.

Elgoibar-ko Aberri-ri

Gaizki zala jakiteak naigabetu ninduan. Baña Ixaka adiskideak dionez laixter da kalerako moduan. Eskerrak ba Ixaka, Aixerixa ta Mirentxu laguntzalle onak dauzkala, bestela ez dakit... ez dakit... bost errealeko neska zarra zedoze ez ote zan bearko.

Bi illabetera ezkonduzteko
ziñan guri itzegiña,
bera zalata eman ziguten
amaiketako bikaña.
Bolara ontan neska zaarrak
merke dira alajaña!
Premiz bazera ere badezu
norekin tratu egiña.

Eup, Anaxtaxio! Iturralde, zer derizkiozute?

Zarautz

El Día, 1932-12-25

Euskal izena

Gure lagun gogozko dan Laskibartar Ixidor-en emazteak mutiko batez geitua ikusi du bere sendia. Ugutzatzerakoan Iñaki euskal izen ederra ezarri diote. Aita-amabitxi, Errerako abertzale zintzoa dan Alkizatar Jakoba ta Etxabetar Benantxi izan ziran. Ama-se-meak ongi arkitzen dira. Zorionak, Ixidor.

Antzerki-jai

Igaro dan igandez ere, aizer unea genduan! “Axentxi ta Kontxexi” ta “Maite” antzeztu zituzten gure ertilariak.

Lenengoa bi gaztetxuren gain zegoan, ta arrigarri izan zitzai-gun beren egokitasuna. Areto ederra bete bete egiten zuan jende-tzak gogoz txalotu zituan.

Ondorengoa, ooo... zoragarria! “Maite” izen legun ta gozoa benetan. Zarautzar antzezlariak antzeztu zuten bezela gozoagoa oraindik.

P. Eizagirre ta Txapartegi andereñoak argiro erakutsi ziguten lan ontarako duten trebetasuna. Lendik ere goieneko zirala ja-kiñean giñan, baña igandean bezela iñoiz ez ditugu ikusi.

Lizundia ta Txapartegi gazte trebeak ere ertilari jatortzat de-rior jo bear. Ta gure apaiz jaun don Alberto, ondo baño obeto...

Itz batean, au da: bear bezela goitzeko ez naizela diña.

Datorren igandean “Eguarriz Jesusen Jayotza” gazte taldeak antzeztuko du. Beraz irakurle, arratsalde atsegin baten jabe ba-zera badakizu nora jo.

Argia-ren Egutegia

Eskuratu degu aurtengoa ere. Olerki, marrazki ta idazki ederrik badu berekin. Euskaldun danak bear lutekien liburu apain ta sakona.

Irakurle, negu beltzeko ordu luzeak atsegingarri ta labur egingo zaizkitzu *Argiaren Egutegia* zeureganatzen badezu. Bizkor ibili oraintxe!

Agur

“Euskal Orri” onen irakurle, ta idazle batez ere zuzendari jaun prestuari, Eguarri zoriontsuak opa dizkie...

BASARRIK.

Berdin zuri ta zarauztar guzioi ere, zuen artean Eguarriak bota izan dituan LUZEAR-ek.

Zarautz

Euzkadi, 1933-02-09 / *El Día*, 1933-02-10

Euskal izena

Alberditar Emilen ta Arregitar Abeline senar-emazte zintzoak, mutiko bat badute berengan. Ugutzatu edo bataiatzerakoan Ander euskal izen ederra ezarri diote. Jaio berria bezela ama ere onik arkitzen da. Mendigoizale bat geiago. Zorionak, Emilen.

Deun Agate

Oitura zarrari jarraituaz, Deun Agate aurreguna aundikiro ospatu degu. Goi basetxetan guk oraindik ezagutu ez degun ainbat talde ibili zan. Emen kaletan berriz, gaztetxu taldea ta mutil taldeak gusto eman dute. Oitura zarren piztuera au abertzaletasunari zor zaio. Zarauzko Euzko Gaztediari bijoazkio gure txaloak.

Gure pelotariak

Euzko Gaztedi kiroltzaleak antolatuta, jaiero jai ikuskizun gogozkoak ditugu. Pilotariak!

Igaro dan igandez, eguardiko amaikak aldean, Cinema pilotalekura jo genduan. Galtza txuri ta gerriko gorriakin pulamentuz gure mutillak.

Lenengo, bigarren mallakoak jokatu zuten: Oyarzabal eta Aranburu, Ortiz de Zarate ta Iturain-en aurka. Azken aldera joko polita egin zuten guztiak. Lenengoak irabazi zuten. Galtzalleak emezortzikin gelditu ziran.

Ondoren, Arregi ta Lazkano ziran, Iruretagoyena ta Eizagirren aurka. Jokaldi edo partidu au ikusteko zaletasun aundia zegon. Ederrik eta esturik izan bada, uraxen bai beintzat. Eizagirre ta Iruretagoyenak beren egokitasuna argiro erakutsi zuten. Lazkano ere txit ondo egon zan. Agirre, erdipurdi.

Lenengotik alde aundia ibili zuten eta azkenik, 20ña ta 21na berdindu ziran. Arregi ta Lazkanontzat izan zan azken tantoa. Jende asko ikusi genduan.

Itzaldia

Iragarrita edo aditzera emanda zegoan bezela, igaro dan igande arratsaldez itzaldi aberkoi bat izan genduan E. B. Batzaren aretoan. Barriolatar Miren donostiar andereñoa izlari. "Malen" idazle azkarraren aurkezpen egokiaren urren, euskeraz agur xamur bat eskeñi ondoren, asi da izketan. Emakumearen eginbearrak argi azaldu dizkigu. Euskera, aberria, ta izparringi edo periodiko onak goraldtu zituan. Azkenik, gogoz txalotua izan zan. Zorionak.

Antzerki-jai

Arratseko zazpiretan, orratz baten tokirik ez emakumien aretoan. Olakorik ez degu ezagutu. Abertzalien ugalden onek gure bazterrak txiki utzi ditu.

Esanda gendukan bezela, "Maite" ta "Bernardiñoren larriyak" antzertu ziran. Beti bezela, bikain jokatu ziran gure gazteak. Alberdi, Aiara ta Anastasik alaitu zuten jendea. Ango parreak! Berriro ikusteko gogoz gelditu dira guztiak.

Entzun, tratalari

Lerro auen bidez jakiñean jarri nai zaitut, tratalari. Sarri gertatu oi zeraten bezela, txerri gizen ta ederren zale bazerate, zuzendu arren Zarautzera. Talde galanta osatzeko erreztasuna daukagu. Zuzenbidea: Santa Clara, 25, Azken Portu ardandegia.

Euzko Langilleak

Egun aundi bat ospatzeko asmoz dira, beren biltokian askunde eguna. Eta au, Deun Joseba egunean izango da.

Meza nagusi, otordu, itzaldi ta abar, danetik izango degu. Gertu bada guztiok!

Naskaldiya

Gudaritza betetzera joan dira Subinastar Perdinanda ta Ezenarrotar Jon abertzale zintzo ta antzezlari bikañak.

-Igaro dan astean il zan Aisi basetxeko gizon gaztea. (G.B.)



Portua

Zarautz

Euzkadi, 1933-03-11

Euskal izena

Amuskibartar Kelestin ta Azkargortatar Jone senar-emazte zintzoak izan duten semetxoari Iñaki euskal izen ederra bezin polita ezarri diote.

Ekintza ori dala bide, Zarauzko abertzaleak poztu ere asko poztu gaitu. Euskaltzaletasun da abertzaletasuna oiua ta deadar aundi gabe azaldu liteke. Sendi au artu irudi. Zorionak bada, zorionak.

Batzarra

Igaro dan larunbatez genduan, ta bertan Uri Buru Batzar berria autu bear zan.

Zinkunegi prestuak urteko goraberak azaldu ondoren, autarki edo botoz izendatu ziran gizonak.

Ona emen zein da nola:

Lendakari, Zinunegitar Joseba (Lengoa bera).

Idazkari: Alberditar Emilen.

Diru-zai, Larratetar Estepan (lengoa)

Batzarkide, Beristaindar Jagoba ta Odrizolatarrak Baler jauna. Jarrai atzerapen gabe aberriaren zoriona dakarkin bide bakar ortan.

Eskerrak lengo Uri Buru Batzarrari, azaldu duan zuzentasunagatik.

Erabaki zuzena

Batzar ondorengo erabaki batek gogoz poztu giñuzen. Lizundia-tar Iñaki Euzko Etxeako lendakariak eskatu zuan itza. Barrenatar Polikarpa abertzale sutsu ta goienekoagatik zion: Guztiok dakizute zer gizon azaldu zaigun, Gipuzku Buru Batzarreko len-

dakaritza inork gutxi egin lezaken bezela bete duala ezin ukatu. Erki edo probintzi osoaren izena goruntz jaso du. Zarautzi zaio au pozgarrien. Bera dalata, bere omenez opari bat izatea bidezko derizkiot. Eta Euzko Etxeako aretoa betetzen zuan ostetzak, ao batez erantzun zuan. Ondo ziozun bai, Inaki, ez du oraintxe irabazia ta. Onelako gizonak bear ditu aberriak. Zorionak, Poli.

Emakume A. Batzan

Iragarrita zegoan bezela, emakumien aretoan itzaldi aberkoi bat izan genduan. Goenagatar Pie azpeitiar andereñoa izlari. Euskeraz daukan erreztasun berezia argiro erakutsi zuan. Len zer giñan ta aurrera zer bear degun ongi adierazi zigun. Euzko edestiakin batera euskera ere txit gora jaso zuan, da azkenik txalotan bukatu zuan bere itzaldia. Zarauztar emakumea, entzundakoa gogoan izango ote? Anbat litzake!

Euzko Langilleak

Deun Joseba egunerako sekulako jaiak dituzte. Beste gauza askoren artean itzaldi ederrak beintzat. Danen berria jakiten degun bezin azkar aditzera emango degu. Langilleak, gertu guztiok! Illaren 19an, Zarautza.

Entzun aberkide!

Ez idazle azkar batek idatzita baña... emendik aurrera uritxo ontako izparrak maiz arkituko dituzu izparringi ontan. Beraz irakurle, irakurri *Euzkadi* ta zabaldu zeure lagunen artean.

Zarautz

Euzkadi, 1933-03-19

Antzerkia

Igaro dan larunbat eta igandea antzerki egunak giñuzen. Emakume Abertzalien aretoan “Euzko gogua” antzeztu zuten gure ertilarri azkarrak. Egun bietan ostetza aundia barrundatu genduan. Antzezlariak zer esanik ez, beti bezela txit ongi egon zirala.

Naigabeturik

Berri saminkor batek txit naigabetsu utzi giñuzen zarautzar aber tzaleak. Ta naigabe ori, igaro dan igandez sortu zan; bera berriz, Lizarditar Jabier-en eriotz eguna zala jakiteak ekarri zuan.

Itxas uritxo paketsua bertako seme goralgarriakin ezta aztuko. Euzkadiko olerkari onena zan Lizardi ere zarautzitarra izaki, ta beragaz ezin bada inola aztu.

Au onela dala jakiteak gure naigabe ari ... *(ezin irakurri)*. Zarauzko Euzko Gaztediko ta Emakume Abertzalien ikurriñak makil erdiratu ta margo beltzez agertu ziran.

Astelen arratsean Emakumien aretoa ostez betea zalarik, agurtza donea esan zan bere izenean. Goian bego olerkari trebe ta aberkide zintzoa.

Eriotza

Joan dan astean il zan Paskueltxo basetxeko euzko langille gaztea. Bere illeta ta eleizkizunetan ostetza aundia ikusi zan (G.B.).

Euzko Langilleak

Epallaren 19an (Deun Joseba egunean) ikurrin onespena ospatzeko eratu dituan jaiak. Agerkaia:

8 t'erditan, Euzko Langillien biltokitik erten da... Inñurritzako bauseizatzora zuzenduko dira, artezkari batza ta bazkideak.

9ak laurden gutxitan. Toki berean jaupa deuna izango da, ta txonitza Larreatar Nikasi jaun agurgarriak egingo du.

Au bukatu ondoren, ikurrin onespena.

11tan. Sekulako pilota jokoa eskuz. Bazkun ontako bikotea donostiarren aurka.

1an. Oturuntza nagusia. Tartetan, txistularien eresaldi atsegiñak.

4tan, azoka enparantzan,

ITZALDI GOIENKOAK

Itza zuzenduko dutenak jaun ospatsu auek dira:

Lersunditar Ander (Ondarroako arrantzalien lendakaria) euskeraz.

Larrañagatar Polikarpa jauna (euskeraz).

Robles Arangiztar Imanol, aldun trebea (erderaz).

Euzko langilleak, ta euzko langille etzeratenak, illaren 19an Zarautza guztiok.

Euskal nekazariak

Igaro dan igandez basarritar mordu bat bildu zan Goñi izlari azkar ta alkartasun onen alde etengabe lanean ari danari entzute-ra. Txit pozkiro gelditu ziran guztiak. Ekin bada, ekin beingoz, garaia da-ta!

Zarautz

El Día, 1933-05-15

Espetxeratua

Gure aberkide zintzo ta Mendigoizale lendakaria dan Ayerditar Mikel gaztea espetxeratuta dago.

Irakurle, arritu zaite.

Kamiotako izki edo letrak dirala bide, “Euzkadi da euzkottaren aberria” “Gora Euzkadi Askatuta”!, ta auen antzeko iragarriki batzuk ezarri dituztela ta kartzelara. “Alcibar” idazle azkarrak igandeko idazkian zion bezela, Iruñako estatuto batzar egun artan ikusten zan itxusiagorik; baña, danak paso, ez baizuten separatismo usairik.

Orain dira kontuak. Ta uste dute España laterriak Euzkadi-ra biali dituan agintariak zintzo jokatuko balira abertzaleak lan auetan asiko zirala? Ez dago gaizki, iñozo alenak!

Gure Mikel gazte bikañari galdera sarri ta zorrotzak egin zizkioten epaikariak, ta Mikelek Euzkadin askatasuna dala berak nai duana esan dualako, Azpeitiko espetxean gelditu digute.

Neke garratzerako sortu giñan euzko abertzaleak.

Gorriak ikusten gaude, baña une samin ta naigabetsu auetan, zarauztar abertzaleak goruntz jaso ditugu biotzak, ta Mikelekin batera diogu: Euzkadiren askatasuna dala guk nai deguna, besterik ez.

Mikel adiskide begiko onek lagun gaitu une naigabetsu auetan.

Nekazariak, entzun!

Euskal Nekazarien bazkunak antolatuta, datorren Azentzio egunean itzaldi gartsu bat izango da azoka plazan.

Bertan Larrañagatar Polikarpa apaiz jaun agurgarriak itze-gingo du.

Etorri bada zintzo.

Ez aztu Azentzio egunean eguardiko amaiketan nora zuzendu.

Zarautz

Euzkadi, 1933-05-24

Eskerrak

Eskerrik biozkorrenak Gabirondo euskaltzale sutsu ta adiskide begikoari. Sekulako "Radioa" erosi digu, gure atsegiñerako. Euskal-irratsaioa entzutera eunka lagunak biltzen dira Azken Portuko etxe aurrera. Gabirondo zintzoak mesede au egin digu: Traman-kulurik onenetakoa erosi, iñori gusto ematearren. Beraz irakurle, euskerazko saio gozoak entzun nai badituzu, badakizu nora zuzendu. Eskerrak bada berriro ere. Eup! Zubimendi, Olano, zintzo joka gero, e?

Antzerkia

Datorren igandez ere antzerki-jaiak badegu zarauztarrok. Gure er-tilari bikañak, "Troquel de raza" deritzaion iru ataletako antzerkia antzeztuko dute. Beraz, igandean Emakumien aretora denok.

Agurtu

Igaro dan igandez, Pasai Donibaneko antzezlari trebeak emen agurtu giñuzen. Beren artean ziran erri artako bi ziñegotzi ta endorea ere, ta pozik luza genizkien eskuak. Ain langille purrukataua dan "Ikuz" idazle azkarra ere tartean zuten. Urrenguan giro ohea izango al dezute beintzat Zarautz ikusteko.

Nekazariak

Oraingo eurite onek asko poztu ditu. Arto ta barrunak oso aurre-ra datoz, ta gustora da jendea. Sagarrak ere itxura aundiak ditu. Ala obe.

Elgoibarko "Mirentxu"ri

Beraz igandean Elgoibarra, e? *Argia*-n ziozun danak biltze ezkerro, aizer mutiltzar pillak! "Aberri", "Anastaxio" ta gañontzeko tropa ori

ondo berdintzea kosta bear zaizu ederki. Emakume idazleak ere pilla ederra osatuko zerate, baña... mutilzar oiek tartean dirala, guk ez daukagu itzegiterik. Berak osatuak baidaude aspaldiko partez.

“Ixaka” pronto egongo da, baña ni ezin ziur kontatu.

Aita Egibar

Erritar Josulagun ospatsuak zuzendu zuan itza eleiz nagusian. Igandez bertaratu ziran guztiak arriturik gelditu ziran. Basarritar ta kaletarren artean asko itzezin zan sermoi jator ura zala ta.

Zarautz

El Día, 1933-06-09

Ayerditar Mikel

Aberkide zintzo ta erritar maite au igaro dan ostiralez etxeratu zitzaigun. Etorrera au zala ta, abertzale talde izugarria bildu zan geltoki ingurura, ta gazte zintzoa erdian arturik, etxeraño lagundu zioten. Ongi etorri, adiskide.

Antzerki-jai

Igaro dan igandez ere antzerki eguna genduan. Aurreko igandean ain gogozko izan zan “Troquel de raza” deritzazko antzerkia berriro jendeari agertu bearrian gertatu ziran gure ertilari txaloga-riak. Lengoak lengo dirala, oñengo* antzerkian arrigarrizko gurenda lortu zuten. Gure emakumeak iñoiz ez bezela barrundatu giñun. Lizundia, Iruretagoyena, Uranga ta Alberto mutil bikañak, onenan lotsik gabe berriz.

Jaialdi ori Ayerditar Mikel bulartsuaren omenez izan zan.

Bukaeran bertso batzuk nere gain izan ziran. Adiskide begikoa gogoz txalotu ondoren garaiz oieratu zan jendetza ugaria. Zorionak guztiori.

Sendi berria

Berri atsegingarri bat badegu. Arostegi-Arbide izenez ezagutu degu Durangotik itzuli zaigun sendi abertzalea. Ain txonizlari edo sermolari ospatsua zan Aita Arbide (G. B.) Prantziskatarren elizan luzaro izan zan jaun agurgarrian senideak ditugu auek. Itxas urixka polit au atsegin-kabi biur bedi berentzat.

Getarira

Emakume A. Batzan askunde eguna dala ta zarauztar abertzaleak, guztiak bat egiñik an izango dira datorren igandean. J.L.

Udara

Gañean degu oraintxen ere. Etxe apainketa gogorrak ari dira. Kanpotar askoren itxaropena dago, baña separatista geran kal-darrok ez dakit nola ibilliko geran. Beste jende orrek dionez beñe-pin...



Alameda Madoz

Zarautz

El Día, 1933-06-22

Pelota joko

Iragarrita zegoan bezela, igaro dan ostegunez, au da, Gorputz egunez izan zan Salegi ta Iraeta Txikian arteko neurketa.

Bera zalata, sekulako jendetza ikusi zan Cinema pelotalekuan.

Oso jokaldi desberdiña izan zan.

Lenengo sakea Salegik artu zuan, ta ortantxe doai berezia izanik, aixa menperatu zuan gaztea. 22 ta 3 gelditu ziran. Bejondaikala, zarra!

Ugoldea

Beste alderditan bezela emen ere egin du kalterik asko. Inguruko ordekarri zimurtu gogorra eman die. Emengo ola edo fabrika batzutan galera aundiak dituzte. Letemendia ta Beristain-ek batez ere beintzat.

Erriko pestak

Pelaio Donean egunez izan oi dira, ta gañean degu oraintxe. Lau bat jai badatoz alkarren gañean; zerekin izan ezker, badago nun gozatua, baña aurtengo ontan patrikak arin xamar izaten ez badira... Au idazten dedan unean agerkaian jabe egin gabea naiz. Beraz jaien berria Solaberrieta izparkari jatorran gain gelditzen da.

Arpidea

Ugolde negargarrian bidez ondamentira jo duten sendiai laguntzeko arpidea Batzokian zabaldua dago. Eman dezagun al degun eran, oraindik geu nola gerta giñezken ez dakigu-ta.

Entzun, aberkide!

Datorren larunbatez ere ikuskizun polita badegu gero e..?

Ia ba! Ez dakizula ta ez asi aitzakitan. Arratseko zortzi t'erditan E. Abertzalien aretoan “Bost urtian” ta “Jesus, au neskamea!” antzeztuko dituzte gure ertilari bikañak. Beraz ordu ortan, Emakumien aretoan da zure tokia!

Zizka mizka

Berandutxo bada ere agertu egin nai gauzak. Igandean zortzi, donostiar abertzale jator batzuk agurtzeko era izan genduan. Danen izenik ez jakitea mintzen naiz. Baña Zubimendi olerkaria ta Txomin Olano pianojole bikaiña emen zirala esan gabe ez det utziko.

–Igandez emen luza genion bostekua Lizasotar Andoni Ermuako abertzale zintzo ta soñujole bizkorrari.

–Gutziz sendaturik arkitu degu Eskudero idazle gaztea.

Aberriri omena

“Mirentxu” ta “Maitxo” Elgoibartar arreben asmoak indar aundiak artu ditu. Erri ortan bildutako idazleak erabakitakoa denboraz egingo da noski. Egunan zai gera oraintxe, ta “Aixerixa” ta “Ixaka” adiskideak, asi antolaketan.

Ta, aizazute, “Larreko” idazlean asmoa ez ote da bearreko?

Zuek dezute itza; asi ezkeroko gauzak itxuraz egitea ezta kalteko.

Zarautz

El Día, 1933-07-02

Ugolde negargarriak larritasunik aundienean utzi dituan sendien aldeko diru biltzea igaro dan igandez egin zan emen. Euzko Etxeak ta Emakume Abertzale Batzak jaialdi politikak antulatu zituzten.

Goizean amarrak inguru, Emakumien aretotik irten da erriko kaleai bira eman zioten ezpatadantzari ta gorulariak; noizpeinka dantzatu egiten ziran toki erosotan.

Arratsaldean berriz, Cinema pelotalekura izugarrizko jendetza batu zan.

Ezpatadantzari ta gorulari gaztetxoan saioa guztiz txalotua izan zan. Ondoren pelotariak izan giñun.

Lenengo, Arregi ta Uria ziran, Ayerbe ezkerra ta Ibitorren aurka. Erdipurdiko jokaldi baten ondoren, bigarren auek irabazi zuten.

Ondoren, Eizagirre ta Iruretagoyena, Arzalluz ta Aizpuruaren aurka. Azkenengo auek irten ziran garaille.

Oso sarrera ona izan zan, ta arpideari gorako polita emango zaio. Eskerrik biozkorrenak ain gizon jokatu zaizkigun Iribarren ta Salegi plaza jabeari.

Erriko pestak

Iru jai alajaña aurten! Aseak gera oraingo onetan.

Danen berririk ezin emango det, guztiak ez dira euzko aberztale benetakuen gogozko izanda.

Eleizkizunak oitura dan bezela egin ziran. Ibildeunik ez izateak asko ezereztu zuan Pelaio Donean eguna. Erri guzia eresbata ta guzi ezagutu degu egun ortako ibildeun edo “prozesioan” gaurdaño, baña aurten ezertxo ere ez. Zein ituna!

Meza nagusia ederra izan da beti bezela. Txonitz edo sermoia Lasartetar Sekundino erritar apaiz goralgarriaren gain egon zan.

Euskera gozo xamurrean, baseliz edo ermitatxoan bildu giñanok arritze ainbatekoa egin ere. Pelaio Donean bizitza ixpillu jarririk, erakusbide ederrik eman zuan gure arterako. Bijoakio txiro onen zorionik maitekorrena.

Gero ordea...

Gero gerokoak zirala, alegia. Oitura txarrari indar ematen amorratuak gaude, arraiok ezpaitu!

Eztenkada gogorrak ziran gure biotzetan. Len inoiz ikusi ga-beak ere dantza lotu zale baiziran egun oietan. Ikur aundia erakusgai, ori bai aztu gabe ta antxe etengabe bira zorigaitzekoan.

“Gora Jaungoikoa! Gora Lege Zarra!” eztarria urratzeraño abeslari noiznai. On Sekundinon itzaldia goraldu ere bai, nola ez ba!

Baña... gero gerokoak. Ez berak aurrean ibilli bakarrik, besteak poztu ta indartu gañera.

Ene irakurle, bide ontatik oso oker goaz. Gure itzak gezurrezkoak dirala edozeñek erantzungo du, ta alaxe izan ere egintzaz onela azaltzen geran artean. Pelaio, Pelaio, zaitu gaitzazu, premiz gera-ta!

Itxuskeri bat

Idazle txiro onen belarritara era ontako itzak iritxi dira.

Inurritzako baseleiz edo ermitatzaz diot ori, alegia.

Eleizkizun bikañetan sekulako jendetzak izan dira aurten ere, ta danak nabaitu dute zerbait gauz arrigarria. Eleizaren itxura zatarra.

Orma guziak urratuak, etengabeko ur-jarioak nunai, ta arrixku aundiak gañera, garaiz neurriak artzen ez bazaizkio. Arren bada, entzun dei au.

Ardura duana, edo au dagokiona asi bedi lenbaitlen bere lanetan.

Bear dan aurrerapenik ikusten ez badegu, berriro argitaratudegu gure eskaria.

Antzerki-jaiia

Ia azkenerako utzi nuan alajaña!

Igaro dan larunbatez, au da, Jon Donean egunez, “Bost urtean” ta “Jesus, au neskamea!” antzestu ziran esan bezela. Sarre-ra etzan artaraiñokoa izan.

Gure gazteak bikain azaldu ziran. Zorionak.

Basarritarrak, entzun!

Datorren peri egunez, J.L., izango dira il onen 27rako iragarrita zeuden itzaldiak.

Dakizuten bezela, Goñitar Eusebi eta Larrañagatar Polikarpak itzegingo dute. Beraz perikuan, arratsaldeko bostetan azoka plazan guziok.

Lauaxeta adiskideari

“Aberri”n omenaldiak pot egingo ote duan diozu? Poz ederra ematen diguzu egun ortarako txanponak aurreratzen ari geranori. Toriuan, e, toriuan...?

Arraio ori!

Zarautz

El Día, 1933-07-08

Sukarrietara

Aspaldiko asmoa auxe, baña oraintxe garaiz beteko dana. Zarautzar abertzaleok ezin etsi geure irakasle illezkorraren illobi aurrean otoi egin gabe.

Beragatik, datorren illean, au da, dagonillaren 6an, emengo aberkide mordo bat aruntz joango da, Euzkadiren ziñopa edo martirian atsedentoki ixillean belaunikatzera.

Ona emen ibilbidea: Zarautz, Deba, Lekeitio, Gernika, Durango, Eibar, Azpeiti ta Zarautz.

Euzko-Batzokian dagon ingi edo papeltxoan izen erreskada polita ikusten da, baña besterik inor ibillaldi onetzaz zaletuko baltz, zortzi egun aurrez eman beza aditzera, ta geure artean izango da. Beraz, orain ibilli.

Antzerkia

Gaur larunbata, arratseko zortzi t'erditan ta Emakume Abertzalien aretoan, "Aitona ta Billoba" len ain gogozko izan zan antzerkia berrituko da. Ondoren, Alberditar Peli antzezlari trebeak bakkarrizketa parregarri bat emango du.

Abertzaleak, arratseko zortzi t'erditan Emakume aretora guziok!

Urtetara! Urtetara!

Ene? Ez dezula ezer jakin? Gezurra dirudi gizona! Sekulako jaiak ditugu-ta!

Ene abertzale, igandez Urtetara igoko zera noski. Politza izango litzake bestela beintzat. Jaien berria? Begira, begira ondo:

Goizean 10tan jaupa edo meza bertako baseleiz edo ermita-txoan.

11tan, aureskua.

12tan, bazkaria.

3 t'erditan, ezpatadantzari ta gorularien saioa.

4tan, itzaldia Ugartetxeatar Donato donostiar izlari entzutetsuak itzegiñik.

Basarri txiro oni ere jarri diote bere lanbidea, ez dago esan bearrik zer izango dan. Mendigoizaleak ere antxe dute beren jaialdia. Ayerditar Mikel gaztea ere bertan sarituko da. Ori guzia ikusi nai duanak goruntz igo bear. Basarritar ta kaletarrak, igandean Urtetara!

Eriotza

Bi ebakuntz edo operazio egin ondoren, Donostin eman du azken arnasa Lertxunditar Inaxio erritar gizon ezagunak. G.B.

Samintasun larri onetan laguntzen diegu bere sendikoai. Irakurle, aita gure bat bere gogo aldez.

Udara

Asi da erbesteko jendea. Itxaropen aundia dago aurtengo onetan. Olakoxe denborak balira... Ongi etorri ba.

Zarautz

El Día, 1933-07-18

Aurrez esanda gendukan bezela, igaro dan larunbatez izan zan nekazarien txanda. Genion bezela, Goñitar Eusebi eta Larrañagatar Poli ziran izlari.

Basarritar mordo polita batu zan, ta txit gogozko izan ziran beren egi garrantzitsuak.

Ia ba esnatzen geran, garaia da-ta!

Ta zueri, eskerrak, adiskide begikuok.

Urtetako jaiak

Aundiki ospatu giñun. Goiz goizetik mendiruntz jo zuan erritar abertzale taldeak.

Zumaiako Etxabe organu zale zalarik, meza nagusi bikañenetakoa izan zan. Olabeaga, Amezti ta Izeta an zirala esan ezker ez dago zalantzik. Aizer abotsak angoak!

Meza ondoren, Pagolatar Luis ballarako apaizak mendigoizalien ikurriña onetsi zuan. Gero aureskua dantzatu zuten ezpatadantzari gazteak.

Ordubatean bazkaria Elizamendi basetxean, sekulako taldea bildu zan.

Arratsaldeko ezpatadantzarien saio ere txalogarri benetan!

Ta itzaldia?

Ez dago esan bearrik Ugartetxea jauna zala esan ezker, ez dago geiagon bearrik.

Abertzaletasunan oñarria argi ta garbi azaldu zuan. Euskal Nekazari bazkunantzat itz gozoak izan zituan, ta an bildutako nekazariai lenbaitlen beren izenak emateko eskatu zien. Guztiz txalotua izan zan.

Ondoren, Gipuzku Mendigoizale batzako lendakari dan Alberdik Kataluñako "Palestra" ikurra erantsi zion Ayerditar Mikel erritar gazteari.

Euzko Abendaren Ereserkiakin amaitu zan, ta gero gazte jendeak dantza ta dantza egin zuan aimaikua arte.

Ona jaien berria laburki. Min dut ziatz ta osoro ez eman bearra. Ez baita egoki betiko nere jarduna. Azketsi ba.

Agurtu

Jai oriek zirala bide emen agurtu genduan Txomin Olano pianojole bikain ta abertzale purrukatua.

Jaiotza

Gure aberkide begiko dan Arregitar Joxe Manuelek mendigoizale batez ugaldua ikusi du bere sendia. Euzkotar jatorrari dagokien bezela, ugutzatuz edo bataiatzerakoan, Gorka izen eder bezin polita ezarri diote.

Aita-amabitxi, Arregitar Txomin ta Arregitar Imanole, gazte-txoen senideak izan ziran. Nola jaio berria ala ama, ongi arkitzen dira. Urte askoan

Berri samina

Gaxoaldi luze baten ondoren Jaunari kontu eman dio Errotaberri basetxeko andereak.

–Orobat, Arozenatar Onakleta andere ezagunak ere.

Utsune negargarri oriek gure otoitzak osatu bitzate.

Samintasunean lagun gaituzte beren sendikoak.

Sukarrietara

Eguna urreratzen ari da. Gure ibil-poza aunditzen berriz. Irakurle, gure bixita au gogozko bazaizu, badakizkitzu kondizioak.

Zarautz

El Día, 1933-08-19

Ikusgarria dago. Inoiz ez degu era onetan ezagutu. Etxe guziak emanak daude. Ostatuak gañezka. Eguardiko denboran ikusgarria da gure itxas ertza. Kaletan ezin da oinkadarik aldatu inularra ezker. Gabean lo egitera Getarira ta Zumaiara aldatzen diran sendiak badira. Zarautz betea dago, ezin lezake geiago. Sorgin-kerin bat gertatzen da. Oinbeste “separatista” dagon tokian nola leike ordea? Ez det ulertzen.

Gure asarrea

Inoren ganako pegirapena etzaigu palta euzkotarrori. Munduko aberri guziari diogu naitasuna. Geureak ez diran oitura ta izkuntzak burumakur ta gizonki artzen ditugu. Geuk besterenak itzal aundiz artzen ditugun ezker, bidezko litzake beste oriek geureak ala artzea. Baña ezta ba onela gertatzen. Begira gertaera oni.

Lengo egun batez, erriko bando jotzalleak –orain udaran sarri oi dan bezela– bazuan bere lantxo.

Erkalaren enparantzan asi zan oitura duan bezela euskeraz aditzera ematen. Emen onela egiten baita: aurrena euskeraz ta ondoren erderaz. Euzko mintzoa entzun zutenean, an aurreko aldean zegon atzerritar mordoa asi zan karraxi ta orruaz, ta ango txistuan bidez bando jotzalleak utzi egin bear izan zion euskeraz egiteari, ta, jakiña, erdera utsean jarraitu. Geroztik, ez dakigu bil-durrez edo, baña kantoi askotan erdera utsean entzuten degu.

Egikera au bidezko bada, egienak ala bear dute. Asarre biziz altxatzen gera onen aurka. Geu ez gera inori min eman zale, ta geroni ez deigutela nolana eman. Pitxirik maitekorrena ez deigutela iraindu. Bijoja gure asarrea.

Amabirjiñak

Igaro dira gure jai nagusiak. Zezenketa, pelota joko, su pesta ta soñua ugari izan da. Ez illundu mutillak, onena etortzeko ziok eta. Euskal pesta alegia. Tientuan txapas.

Euskel izena

Euzko Etxeako lendakari prestua dan Lizundiatar Iñakik aurtxo batez ugaldua ikusi du bere sendia. Iñaki bezelako abertzale bati dagokion eran, bataiatzerakoan Miren Karmele euskal izen zoragarria ipiñi diote.

Nola jaio berria ala ama, ongi arkitzen dira. Zorionak.

Aralar-era

Arana Goiri anaiei omenez egingo diran jaietara 30 abertzale inguru joango dira emendik ere. Goi artako aize osasuntsuak lenez gañera aberri-miñez josiko al zaituzte ba. Ongi ibili.

“Atarrene”ri

Sendagille bat joan zitaion
“Aberri”ri esatera
ezkondu edo pralle sartzea
egin zezala kolpera.
Zu ere kofradian zera
Gotzon orrekin batera.
Sasoi onena orain dezu ta
kontuak ondo atera.

Zarautz

El Día, 1933-08-27

Sarritan entzun deguna da abertzaletasuna aldaparik neketsue-netakoa dala. Egia. Ori nunai agertu gentzake abertzaleak geranok, baña batez ere, zarautzar abertzaleok.

Itxas ertz zoragarri onen bidez, urtero atzerritarrez ugaldua ikusten degu gure erritxo maitea.

Euzkotarrok oitura degun bezela, beso zabal ta biotzez artzen dakizkigu gure artean.

Ortan zarautzar abertzaleak utsegin degula diona gezurti biribil biribilla da. Ongi etorririk maitakorrena egin diegu aurten ere.

Baña beti dago zerbait. Jende gutxi datorrenean, separatistagatik izaten da. Asko datorrenean berriz, egundo baño gorroto aundiagoa.

Abertzaleon etxeak lenengo bezela ematen baidira, ta orixe ezin eraman gure españolista sonatu auek. Edo batera gerta, edo bestera, berdin berdin da jaunak.

Gu iraindu edo zapaldu ezkerero, oiena egiña dago.

Baña orixe kosta bear zaiote ederki.

Negua izan edo udara, guk berdin jarraitzen degu abertzale-tasun arazoan. Ez degu batere atzerapenik, ta ezta bear ere. Gure españolistak min dute orixen ere. Ezin eraman, arraioa!

Arroaldi dute oraintxe. Kanpotar praka zuriak ere egin dituzte lagun, gezur ta abar. Ezer irakurri gabeko ezjakiñak ere atzipetu dituzte, ta emen datoz esanaz: "Bai, zuek nazionalistak, kastillano danak puera!, esaten dezute ta, ori ezta bidezko; guri auek ematen digute jaten, da beren jarraitzalle izan nai degu". Bapo!

Oinkadarik aldatu orduko ezagutzen gera. Guk biderik eman gabe datoz.

Edo ezkerria izan edo eskubia, uda partera ezkerero berdin da, abertzaleakin dute lanik asko.

Egia esan, kanpoko jendeak ez digu mintzeko artañoako moti-
borik eman. Zerbait utsegin digutenean, jabe atera gera.

Oñengoan adierazi nizuten agintz edo bando kontuakin ger-
tatua. Uste det itzegiteko bidea bazala. Geure errian geure izkun-
tzan mintzatzea eragotzi naia itxuskeririk aundienetakoa da.

Gu Sevillara joan eta angoari euskeraz egiteko agintzea bezela
da-ta. Olakorik danean asarre biziz jaikiko gera, baña gañun-
tzean, ez.



Asteroko *Amayur* saltzeko ardura mendigoizaleak daukate, ta
larunbatero lan orri ekiten diote kale ertzetan “*Amayur* asteroko
abertzalea!” deadar egiñaz.

Asarre dira gure etsaiak au dalata. Neroni ere sekulakoak
esan dizkidate, neuk gogor erantzun badiet ere.

Lengo egunez, Idiakez aske jarri dedilla eskatuaz izki edo le-
tra aundiak ikusten ziran bazter askotan.

Ori dalata, arpegi beltz asko ikusi degu, eta erritarrak dira
okerrenak.

Etsaiz inguratuak gaude; gañezka dauzkagu. Lotsa bear lute-
ke gaur abertzaletasunan aurka ateratzea.

Gezurra dirudi, jaunak.

Burruka gogorak dauzkagu. Aldapa neketsua Arana Goiri-
tar Sabiñek ezarritakoa, bai, baña gaur, an beste aldera begira
dijoazen anaiak, beste bide batetik jotzen dutenak, egunero gu
iraintzen ta guri txar egiten dabiltzan oiek laxter artu bear dute
aldapa ber bera.

Aurrera zarauztarrak! Goruntz biotzak!

Ez izan bildur.

Datorrena datorrela. Zabaldu dezagun Sabiñen ikasbidea. Iri-
txi gaitean anai danengana. Berak beltz badira ere gu alai egia-
rekin.

Eska dezagun goitar laguntza, ta sendo ta bikain joka gaiten-
zen olatu zakar auen aurka.

Zarautz

El Día, 1933-09-01

Euskal pesta

Illaren 9an izango da oitura dan bezela. Ez aztu irakurle, urte guzian egiten dan pestik ederrena dala.

Aurten ere, dantzari neurketa, gurdi sari, eresaldi, ta etengabeko euzko soñua, danetik izango da.

Urrengo astean emango det guzieren berri.

Izpar pozgarria

Nik ala uste beintzat, geienak poztuko dirala. Illaren 10ean Poxpoliñak datozkigula alegia... Igaro dan igandez Deban izan zuten gurenda ikusi ondoren, zarauztarrak ere zaletu dira, ta oietxek ekarri arteko onik ez.

Beraz, izendatutako egun ortan emen izango ditugu, ta gertutu guziok. Egitaraua denboraz agertuko det.

Izkirimiria

–Aizu, Praixku...

–Zer dek, Anton?

–Zuk ba aldakizu Amabirjiña Agorrekoa zein illetan izaten dan?

–Seguru segururik ez baña, arbi bakantzeko denboran izaten dala bai.

Zarautz

El Día, 1933-09-08

Irujo-Leizaola

Ona gaur ostiralez itzegingo diguten eletari azkar kementsuak. Irujotar Imanol legegizon jakintsua, ta Leizaolatar Josu Mirena euzko aldun aipagarriak.

Itzaldi auek azoka plazan izango dira, ta arratseko bederatzi-tan. Abertzaleak, ta abertzale etzeratenak, guziak azoka plazara egun ortan!

Euskal pesta

Irakurle, agindu bezela emen nator agerkaiakin. Agorrillaren 9an egingo dan Euzko Jaiaren egitaraua:

Goizeko 7tan: Txistulariak goizeresia.

9tan: Ingurutako erritako txistularien etorrera, biribilketa alaiak joaz kalerik kale.

12etan: Erriko eresbatzak euzko erestaldia.

Arratsaldeko 4tan: Euzko erara apaindutako gurdi eta erromerizaleak Muno aldeko bide berrian bilduko dira. Ondoren Enparantza, Kale nagusi, Pantzeska Deuna, Ostatu Aundia ta Iñurritza bide zear joango dira, bide berrian Arruti semien ola ta Zubi Berriaren artean gelditurik.

6etan: Iñurritzako Enparantzan erromeria, euzko erara jantzitako bikoteen dantza neurketakin asiera ematen zaiola. Sari auek izango dira:

1goa, 25 laurleko.

2goa, 20.

3goa, 15.

4goa, 10.

5goa, 5.

8tan: Irrintzilari, eresbatza ta txistulariak alaituta itzulpena.

10 ½etatik 12tara: Euzko erromerian jarraipena.

Gurdientzeko sariak:

1goa: 300 laurleko.

2goa: 250 laurleko.

3goa: 200.

4goa: 150.

Aupa mutillak! Geure eguna diagu oraingoa; saia gaitean al dan goieneko irten dedin.

Poxpoliñak, Poxpoliñak

Illaren 10ean ditugu, ta auetxek ikusgarriak noski. Ez ba arren ikusi gabe utzi Zumaia, Orio, Getari, Usurbil ta gañontzeko erriak. Arratsalde eder baten zale bazerate, egun ortan Zarautza.

Euskal izena

Adiskide zintzo ta abertzale sutsua dan Izetatar Jonek mendigoizale batez ugaldua ikusi du bere sendia, ta euzkotar bati dagokion eran, euskal izen jator batez ugutzatu. Gaztetxoari Kepa deritza, ta nola ama ala umea bera oso ongi arkitzen dira. Zorionak, Jon.

Zubimenditar Joseba

Euzko olerkari eta idazle aipatu onen gaxoaldiak asko mindu gaitu. Jaunak nai beza abenda zarraren laguntzaile sendoa dan adiskidea lenbaitlen osatzea.

Jauregitar Koldobikari

Zorionik biozkorrenak damaizkiogu Getxoko olerki guduan lortu duan gurendagatik.

Zarautz

El Día, 1933-09-16 / Euzkadi, 1933-09-19*

Euskal pesta

Oitura bezela, larunbatez gendun gure pesta egun sonatua. Ikusterik ez nuan izan, ta ezin eman arrasto aundirik. Egundo baño jendetza aundiagoa ta pesta bikañagoa zala badakigu.

Solaberrieta izperkari jatorrak garbi azaldu digu jaien berria, ta ixildu nadin gai orretan.

Itzaldi galeraziak

Igaro dan ostiralerako iragarrita zeuden Irujo ta Leizaolan mintzaldiak gobernadoreak galerazi egin zituan. Zaletasun izugarria nola zegon, asko naigabetu ziran beragatik.

Noiz izango ote?

Eriotz samiña

Gaxoaldi luze gogor baten ondoren, Jaunari kontu eman dio Kortajarenatar Andoni, Benta basetxeko mutil gazteak

Eriotz au dalata, erri osoa mindurik ta naigabeturik arkitu degu. Ain zan ona ta ain zan zintzoa gure Andoni. Sendi saminduak lagun gaitu negargarrizko une itun auetan. Iralurle, aita gure bat ildakoen gogo alde.

Goian bego, gizarajoa.

Zizka-mizka

Egun batzuk emen igarota, Iruñara joan da Erbititar Mikel aberkide sutsua.

* Euzkadi-k kronikaren erdia bakarrik argitaratu zuen.

–Igandez emen agurtu genitun Olanotar Txomin, euskal-irra-tsaioko pianista, “Murumendi” motrikoar euskal idazle trebea, ta “Iturri Txiki” Azpeitikoa.

–Berriro ere morrontzara joan da Arregitar Txomin gudaria.

DIOTE...

Euskal pesta aundia izan dala.

Iñoiz baño jende geiago izan dala.

Gurdi sariak izan dirala.

Pastela egin zutela.

Erdipurdikoak ona ausi zuala.

Sasiain ta Arratibel epaikari zirala.

Beren “demokrazia” agertu zutela.

Legorreko arrantzaleak gustatu zaizkatela.

Ikatzalerik ikusi nai etzutela.

Gutxi estutzen dirala.

Euzko oiturai baño Sevillakoai obetoago antzemango liotekela.

Urrengo urtean beste kuku bat izango dala.

Ondar bidea itxi nai dutela.

Basarritarrak asarre dirala.

Ortan geldituko ez dala.

Zer gizon diran ikusiko dirala.

Batzarrean

Solaberrietatar Joseba autu zan Zumarragako batzarrerako al-dun bezela.

Zarautz

El Día, 1933-10-13

Itzaldi aberkoia

Aspaldian lan aberkoitatik urrun egon bagera ere, negua urrera-zen ari zaigun bezela, asiko geran ustetan gaude.

Datorren larunbaterako itzaldi polit sakon bat antolatu digu-te beintzat.

Polit sakona diot, gutxiagorik ezin lezakelako Urkiagatar Es-tepan *Lauaxeta* euskal olerkari ta idazle aipagarriak.

Beraz larunbatean, arratseko 9tan, Euzko Etxeara guziok.

Aizarnazabalen

Datorren igandean sekulako jaiak ballara ortan. Meza nagusi, pelota partidu, ezpatadantzari, bertsolari, izlari ta gutitik izango da naikoa. Irakurle, igandean badakizu nora joan e?

Antzezlariak

Aueri ere etorri zaiote txanda. Jo ta keia lana egin bear. Igaz ere etziran gutxi saiatuak eta aurten ere asteko kontutan dira.

“Ramuntxo” antzerki zoragarriakin agertuko zaizkigu.

Ta au azaroan lenengo egunean antzeztuko da noski. Gertutu gaitezen gogoz txalotzeko.

“Amaya”

Donostiko Abesbatzak badabilki gero lana. Oraindik orain, “Txan-ton Piperri” esantzerki edo operakin ikusi zuten guziak zoraturik gelditu ziran.

Oraingoan “Amaya” dute. Zoragarria bere izatez, ta Olaizola zuzendari dala, arik eta zoragarriago irten bear.

Zarautzarrak, antzerki zale zeratenok ez galdu egokiera au. Illaren 21ean edo 22an (bitakon batean beintzat) Donostira utse-gin gabe.

“Zebain”

Adiskide min onen eriotzak benetan naigabetu nau. Alkarren gogozko baigiñan.

Gora Euzkadi Askatuta!, azken arnasetan deadar egindako lagun maitea etzait iñoiz aztuko.

Betikotasun atsedenerako aulki zabala arki beza goi zaba-lean. Aita gurea...

Euskal izena

Zalbardin-enean izan duten mutikoari Joseba Mirena euskal izen ederra ezarri diote. Zorionak.

Batzokira, Batzokira!

Abertzaleak, entzun!

Badakizute zer egun datozen. Azaroaren 19an auteskunde edo elezioak ditugu.

Ezker-eskubikoak badakizute zer gizon atera zaizkigun. Etsai utsak!

Orain milla koplak jarriko dituzte, baña alperrik. Euzko Alderdi Jeltzaleak danen gain atera bear du.

Ta gure erria bestetatik lotsagarri izan ez dedin lana egin bear. Badaukagu zeri eldu. Abertzaleak, Batzokira egunero!

Zarautz

El Día, 1933-10-22 / Euzkadi, 1933-10-24

Euzko Araudia

Zorioneko araudi edo estatutoaren gorabera oraintxe degu.

Bi bide arkitzen ditugu: Euzkadiren aurka, edo Euzkadiren alde.

Azaroaren 5ean araudiaren alde jokatzeko eztan euskaldunak 1839garren urtean Espartero ta Marotok Bergarako errian egin zuten ainbateko maltzurkeria egiten du. Ikusi ta gogoan artuko ditugu bide ortatik dijoazenak.

Abertzaleak gogor ari dira lanean, ta gañontzekoak ere ez al dira zearo atzean geldituko noski.

Zarauztarrak, illaren bostean euzko araudiaren alde botoa ematera guziok!

“Amaya”

Ikaragarria izan bear du onetxek. Ongi dakian batek esanda da-kigu iñoiz ezagutu eztan bezelako zaletasuna ta gogoia dagoala ertilarien artean ere.

Bizkor ibilli ba, orain da garaia ta. Denbora joan da damutzeak eztu balioko.

Tira, tira... artu txartela,
ta ez izan txepela.

Ezkontza

Igaro dan larunbatez ezkondu ziran Esnaltar Imanol, Errota-zar basetxeko mutilla, ta Kortajarenatar Erramuna, Bentako gaztea.

Urte askotarako alkarrekin izan bitez.

Eriotza

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Maria Uranga, Altzolaneko amona. G.B.

Irakurle, otoi bere gogo aldez.

Larunbateko itzaldia

Aditzera emana gendukan bezela, Lauaxeta euzko idazle azkarra gendun izlari. Nolako abertzaleak izan bear degun erakutsiaz sekulakoa egin zigun.

Bere egiak gogoan izango al dira noski.

Batzokia bete bete egiten zuan jendetzak, nola tartetan ala azkenean, gogor txalotu zuan. Artu berriro nereak.

Aizarnazabalen

Aberkide talde aundia zan igandez emendik, ta ango jai ederragaz pozturik etxeratu giñan guziok.

Euzko ikurritzak bereganatu beza uri polit ori.

Batzokira, Batzokira

Berriro deadarka nazu aberkide. Lanerako denborak baiditugu.

Ta ortan ez degu bik edo iruk bakarrik saiatu bear, abertzale guziak baizik.

Ia ba, Batzokira egunero!

Zarautz

El Día, 1933-10-28

“Amaya”

Esantzerki orren edertasun ta zoragarritasuna nabaitzeko asmoz, abertzale talde aundia Donostiratu zan emendik.

Ta benetan zoragarria izaki “Amaya”. Ni beintzat nun nengoan ez nekiala egona nintzan.

“Lushe Mendi” ta “Claro de Luna” gai oietan ain jakitun diran idazlien iritziak guziok irakurriko zenituzten.

Antzoki gutxitan ezagutu da “Amaya”k Victoria Eugenia lortu zuan bezelako gurenda. Euzko Abesbatzaren lana bai txalogarri. Euzkadiri ikaragarritzko aurrerakada damakio erti bidean.

Bear bezela eskertzen ikasi bear degu, oraindik ez dakigu ondo ta.

Iñungo idazleak ezin lezazke oiek bear bezela goitu, ta nere itzak utsaren urrengoak dira.

Baña, eskerrak, eskerrak milla bider Euzko Abesbatzari. Eskerrak, euzkotar guzien txalo bereziak irabazita dagon Olaizola jaunari. Berdin gai auetan ain saiatuak diran Atarrene, Zubimendi, Zaldua, Alzaga ta Txomin Olano pianojole asper eziñari.

Izenez esan gabeak, barkatu, gogoratzen ez naizelako da-ta. Gora zuek!

“Ramuntxo”

Gure antzezleriak saiatuak dira, arraiok ezpaitu. Oien lanerako poza!

Badakizute orain antzerki-jai zoragarri bat antolatu digutela. “Ramuntxo” deritza. Auxe utsegitea mingarri izango litzake, ederretakoa baita.

Bada, datorren illaren lenengo egunean izango da jaialdi au, ta toki lasai xamarra nola eskatzen duan, Olaizola jaunaren garahean egingo digute.

Antzerkiz gañera beste zerbait izatea baliteke, ta aditzera emango degu denboraz.

Deun guzien egunean “Ramuntxo” ikustera danok!

Eriotza

Igaro dan igandez il zan Zataraindar Aurelia emakume sasoikoa.
G. B.

Laguntzen diogu atsekabeen bere sendikoai.

Araudi alde

“Reja” bazkunak antolatuta, araudi edo estatuto aldeko itzaldi bikañak ditugu datorren larunbatean. Izlariak auek izango dira: “Martin de Anguiozar” *El Día*-ko idazle aipatua, ta José Sánchez Plazuelos atzerritar araudi zalea.

Jaialdi au Cine Modelon izango da, ta arratseko bederatzitan du asiera.

Bertara guziok!

Zarautz

El Día, 1933-11-26

Maizterrak, entzun

Urteko errenta ordainketako egunak urreratu zaizkitzute. San Tomas inguru au pijo da lan oietarako.

Izan berria dan auteskunde bolarako gorabera ta ikuskizunagatik asko ta asko bildur izango zerate nagusiangana aurre-ratzeko.

Izan ere ain batera etorri dira gauzak. Urte berrian asieran izan balira auteskunde edo elezio auek etzan artaraño bildurtze-koa, baña errenta garaian gertatu dira, ta ezta arritzekoa nagusi jende orren zipozitalen batzuk entzun bear izatea.

Basarritar biotzekoak, entzun arren!

Iñongo nagusiak, etxe errenta ordaintzera eramanzita, eze-ren enbarazurik jarri, muturka zerbait gauz txarra esan, edo etxeko goraberetan desapion bat egiñagatikan ez bildurtu arren! Anai maiteok, ez kezki izan batere. Ortako ezer gertatzen bazai-zute, etorri erriko Euzko Etxeara ta itzegingo degu astiro.

Nagusi etxean, lau orma tartean artuta errez esango dituzte gauz asko ta asko, baña Euzko Alderdiak garaiz jakiten badu egingo ditugu kontuak. Entzun dezute? Bai? Ia ba, anai mai-teok.

Sabiñen gogo aldez

Gaur igandea, goizeko zortzi t'erditan ta parrokoiko eleiz nagusian izango da Arana Goiritar Sabin irakasle illezkorraren aldezko meza. Abertzaleok, ordu orretan parrokira guziok!

Eriotza

Gaxoaldi luze neketsu baten ondoren Jaunari kontu eman dio Maria Zubizarreta, Untzain goiko andre ezagunak. G. B.

Sendi naigabetuai laguntzen diogu une samingarri auetan, ta zuri irakurle, aita gure bat eskatzen dizut bere gogo alde.

“Beti Bat” idazleari

Karlista jatorrari txapela erazten dakit, irakurle; ta emen Zarautzen bat badaukat gustora erazten diodana. “Beti Bat” idazle azkarra da berau.

Karlista egizkoari dagokion bezela, beti ta dabillen toki guzian euskaltzale sutsu ta euzkotar benetako agertzen zaigu. Araudi edo estatutoan gurenda eguna ta igaro dan igandekoa, bere bizi-tzako egunik alaiena noski.

Monzon alduna ta biak, egunaren zoragarria nabaiturik, aberri miñak guziz aizaturik, malko negartiz besarkatu ziran igaro dan igandez. Nere baitan nion: Abertzale eta zarrontzalea alkar-ganatuta –esango du norbaitek– baña or besarkatu diran oriek, ez dute bateko ta besteko izenik, or besarkatu diran oriek bi abertzale biotz sutsu dira, bi euskaldun bikain, ta pozaren aunditasunez negar dagioten euzko biotzak lotuta daukagun ama Euzkadiren askatasun, zorion, pakea besterik ez dute eskatzen.

Gurenda egun auetan gozoro arkitzen dan “Beti Bat” adiski-deak, artu bitza idazle txiro onen zorionik biozkorrenak.

Zarautz

Euzkadi, 1934-01-23

Erriko berririk euskeraz ez dala agertzen da itun antzean arkitu dituk irakurle batzuk. Lan guziak batera ezin ba egin nik ere!

Tamalgarria lagun bat ez izan bearra nik lan ontarako Zarautzen. “Balbide”, “Aitzgorri”, “Arritza” ta gañontzekoak nun zerate?

Ia ba adiskideak, pixka bat esnatzen geran-edo...

Berriketaldiak

Zarauzko Euzko Etxeak berriketaldi edo (charla) aberkoiak antolatu ditu.

Igaro dan ostegunez asi ziran, ta bertan Zinkunegi sendagille ospatsuak gai jakingarriak erabili zituan. Urrengo ostegunean Eskudero izparkari gazteak itzegingo du. Nai duan guziak itza eska lezake.

Inguratu bada Batzokira!

Deun Agate

Gure abeslariak ekin diote lanari. Aurten izki berriakin dira. Jaungoikua lagun, orri onetan azalduko ditut olerki oriek. Gazteak, jarraitu oitura onari!

Idiakezen alde

Arpidea zabaldua dago Batzokian. Aberkide! Oraindik zeurea ordaindu gabea bazera, ibili bizkor, garaia da-ta.

Udaletxea

Osatu dirala utsik ziran aulkiak. Len botatako ziñegotziak ditugu oster.

Zarauzko kontuak, ora pro nobis!

Zarautz

Euzkadi, 1934-02-03

Antzerki-jaia

Igandean ere badegu nora joana; aldi eder gozoa igaro nai badezute beintzat, ez daukazute Emakume Abertzale Batzan aretora azaldu besterik. Gure antzezlari trebeak "Ongillearen saria" ta "Gergorioren ta Mari Piliparen ezkontza erabakia" antzeztuko dituzte.

Igande arte ba, irakurle.

Deun Agate

Igandez or irtengo dira etxe ataritarra gure abeslari gazteak. Ez daramakite zuzendari txarra. Alberditar Emilen abertzale zintzoa dutela esanarekin, zarautzarren gogoak beteko dituztela ziur ziur gaude.

Aurrera, oitura zarren alde!

Eriotza

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Arrutitar Eusebe andere eza-guna (G.B.).

Bere sendikoai laguntzen diegu atsekabean.

Igandean

Euskal-irratsaio berezia entzutera Donostiratu ziran erritar guziak erdi zoraturik biurtu ziran jaiaren edertasuna ikusita.

Berri samin bat

Bai, irakurle, berri naigabetsu bat artua degu. Ayerditar Joseba Jeltzale bikain ta adiskide begikoari ama il zaio Lazkaon. (Goian bego).

Samiñaldian laguntzen diogu Joseba zintzoari.

Zarautz

El Día, 1934-02-15

Ona berriro ere...

Aspaldian amaika kontu entzuna naiz idazlanak dirala-ta.

El Día-n Zarauzko berririk euskeraz ez agertzea lotsagarria dala gogotik esan didate askok. Ta nik ezin ukatu, alaxe da-ta.

Baña ori baño lotsagarriagoa da Basarrik lagunik ez izatea lan ontarako. Ainbat idazle izan errian, ta... gezurra dirudi gizona!

Nik len bezela jarraitu det idazten. Esan dezadan beste izparringi batzutan egin dedala. Emen ezin egiña gertatu baizait. Ariztitar Xabier idazle bikañaren ate jokak balio ezpadute...

Nere ixilunea orri onen arlotetasuna bide izan da len ere.

Beste itz erdi bat: Euzko Idazle Batzak zer dio? Asketsi auserdia.

Iru egunera

Arrutitarren ola sonatuko langilleak iru egunera jetxi dira. Orain arte poliki jarraitu dute aste osoko lanarekin, baño lanak urritu orain.

Alde guzitako kanta negargarria!

Saltzalle berria

Amayur Napartarren asteroko bikaña Joxe Atxukarron eskutara aldatu da.

Beraz, *Amayur* irakurri zale zeratenak, zuzendu jaun orren-gana.

Zarautz

Euzkadi, 1934-02-17

Iñauteriak

Joan zaizkigu igesi. Zamo batzuk ikusi ditugu, asko etziran, da zenbat eta gutxiago obe oietatik.

Itxuskeria derizkiot euzkotarrantzat. Emen agertu diran bezela beintzat...

San Frantzisko eleizan izan diran eleizkizunetan jendetza aundia ibili da.

Astearte arratsaldean "Ezer ezta pesta" antzeztu zan emakumetan.

Iru egunera

Arrutitarren ola sonatuko langilleak iru egunera jetxi dira. Orain arte poliki jarraitu dute aste osoan, baña lanak urritu nunbait.

Iru eguneko lana ere, berriz, gauza exkaxa da, irakurle. Au bizi eziña!

Saltzalle berrija

Amayur Napartarren asteroko bikaña, Atxukarrota Josebaren eskutara aldatu da. Beraz, izparringi jator au irakurri zale bazera, zuzendu zaite jaun orrengana.

Udaletxean

Asteazkenez zan alkatea aututzeko laugarren batzarra. Oraingo au xelebrea izan da. Urriza jauna, ustez jarri zuten bere tokian zorrontzalleak, baña endore aulkira inguratu zala ikusi zanean, gañeko jende guzia jaiki zan, da azkenik txapel okerrak asi bear izan zuten gogorrean.

Ango burrukak ta gañontzekoak ikusirik, batzarra bukatu gabe gelditu zan.

Beraz, oraindik ere ez degu alkaterik; jartzera ezkero, jarri dezatela erriko semea, zer demontre!



Santa Maria parrokia

Zarautz

Euzkadi, 1934-02-25

Antzerki-jai

Datorren igandea ere antzerki eguna izango degu noski. Gure emakumeak ala esan digute beintzat. Arratsaldeko sei ta laurde-netan “Bi Aizpak” ta “Maite Beartsua” antzeztuko dira. Lenengoa, Lizardi (G.B.) olerkari zanarena degu. Bigarren au berriz, Irureta-goyena erritar apaiz jaun agurgarriak euskeraldutako esantzerkiñoa (opereta).

Ia ba adiskideak! Une gozoan zale bazerate, inguratu Emakumien aretora.

Abertzale guziaz oarra

Euzko Etxeako batzordeak agintzen dit guziaz oar au adierazteko. Egutero irakurtzen izparringiak batzokira eramateko mesedez, andik Naparroako anaien artera iritxi ditezen.

Oroitu gaitean erki probintzi zar onetaz. Badakizute ba, irakurritako izparringiak batzokira eraman mesedez.

Eriotza

Gaitz bildurgarri batek luzaro oñazez euki ondoren il da Orbegozotar Joseba Imanol (Jose Manuel), *Biraola zarra* izenez ezagutzen genduan gizona (G.B.). Une naigabetsu auetan laguntzen diegu bere sendikoai.

“Ama”

Epailaren lenengo igandean antzeztuko da obra bikain au. Dakizuten bezela, Agirrezabaldar Alberta “Iribe” euskal-idazle argiarena da.

Zarauzko antzezleri bikañenak lan egingo dute egun orretan. Ona emen banaketa:

“Bitori”, Etxabetar Jone
“Nekane”, Agirrezabaltar Itxaro
“Mirentxu”, Illarramenditar Pruden
“Zalduna”, Agirrezabaldar Alberta
“Braulio”, Irureragoienatar Danel
“Juan”, Ayerditar Mikel
“Iñaki”, Etxeberriatar Inoxentxi
“Joxe”, Antzuolatar Anastasi
“Juantxo”, Markiarenatar Joseba

“Ama” antzerki ederrak iru atal ditu. Ikusle guzien gogozko izango dala derizkiogu. Abertzaleok jakiñan gañean zerate. Egun ortara arte ba.

Zarautz

Euzkadi, 1935-03-27

Etzeudek lo zarauztar abertzaleak. Antzoki eder ta apaña zutitu badute ere, bertan ospatzen diran jaialdiak eder ta apañagoak dirala esan genezakek.

Begirakiok datorren iganderako jarri dutena ere.

Ezer ez dakikala? Motza aiz gogotik, Joxe Miel.

Joxe Mielek esaten ez dizulako, ni asiko natzaizu, irakurle. Ba, datorren iganderako bakarriketa sariketa bat eratu da Lizardi Antzokian. Sekulako gudu bat ordea.

Iragarri danerako sekulako zaletasuna sortu du gaztedian artean, ta zalantzan luzaro egon gabetandik, amabi antzezlari aurkeztu dira neurketa ortarako. Epaikariak kanpotik datozkigu, ta gai auetan alain izen aundiko diran Zubimenditar Joseba, Olanotar Txomin ta Arozenatar Andoni "A-BI" bizkorra izango dira. Jaiaren gurenda aurrez ikusten degu. Amabi antzezlarien izenak, biar edo etzi irakurriko dituzu orri ontan.

Irakurri ba *Euzkadi*!

Zarautz

Euzkadi, 1935-03-28

“Gibel Aundi” ta “AMA” Zarautzen

Atzo ere ederraldi zuen Lizardi Antzoki bikañak.

Izan ere alako antzerki-jaiak ospatu ziran. Aurrez esana gendukan bezela, “Gibel Aundi” ta “Ama” genitun geure arteko. Gure antzezlariak beren kemen susmoak agertu zituzten bein ta berriro ere, ta Lizardi Antzokia ia beterik zeukan jendetzak txalo ta txalo zegion eten gabe.

“Ama” antzerkia oso begiko egin zaigu zarautzterrori, ta bukaeran bere egillearentzat, ta euskerara biurtu duan Zinkunegi argiarentzat itz gozo asko izan zan.

Ongi mereziak, alajaña!

Ta irakurle, ona igandez senti genduana: ondo antzeztu zala, ondo atera zala, baña oraindik obetuago atera litekeala, emengo “Gazte Alaiyak” artean.

Berriz ere lan berarekin aurkeztu bearko dala derizkiogu. Kontu eman!

Zorionak jai eratzalle bizkor, antzezlari trebe, “tramoyista” bikain, margolari argi, ta gañontzeko guziai; berezi bereziak, “Gazte Alaiyak”en zuzendari ta euskeratzalle jator Zinkunegi aipagarriari. Aurrera!

Zarautz

Euzkadi, 1936-05-21

Pagoetako eguna inguratu zaigu. Garagarrillaren lenengo igandean onetsi zan gurutz donea, ikusten dezutenez, urteurrena ez degu urruti.

Mendi gain ortako jaiak antzolatzeke batzorde bat izendatua dago ta, arranek ezpaitu, gogor ari dira gertuketan. Urteurren jai auek goieneko izango dirala ezpairik ez degu. Gazteizko gotzai agurgarriak meza santua izateko baimena eman du, ta mezarekin jator asten geralarik gañontzean ere jator bukatu bear.

Garagarrillaren lenengo igandean Pagoetara igoko ez dan gazte asko ezin leike izan; zarautzarrok gizonki erantzun bear degu, ta... albo erritakoak ere ba-dakite.

Egitaraua egin bezin laister argitaratuko zaizute. Gertu guziok!



Aberri-eguna ere badatorkigu. Ordurako jai antolatzeke ardua duan batzordearekin egon gera, baña oraindik ez dago egitarau edo programa bukaturik. Pixkabatean itxogin deiogun, tar-te aundirik ez da izango ta.

Sermoi ta guziko meza, agintariak dantzatutako aureskua, basarritar eta kaletar arteko sokatira saio, gorulari, dantzari, bertsolari, pelotari, albokari, antzerki ta abarretik izango dala badakigu. Emen asi ala ez asi dago. Bein asi ezkeru, ikasi motel..! Aizer eguna!



Entzun, abertzaleak!

Aberri-egunean, leio ta balkoiak apaintzen saiatu gero, e...?

Zarautzen oso oial gutxi jartzen da gure margotakorik. Ainbeste abertzale geralarik ori.

Ea Aberri-egunean lotsak uxatuta izena degun añean ager-
tzen geran! Aditu?



“Sombrero de copa” deritzazko ikus-mintz edo pelikula zan
igandez Lizardin. Denbora ere alakoa ta jendea erruz izan zan
ikusten.

Gure Tomax txikia etzan asarre!



Alberditar Andoni aberkidea oieraturik arkitzen da. Lenbait-
len bizkortu, motel!

Amutxategitar Imanol adiskidea estu samar egona da lau-
bost egunez, baña osatzen ondo ari da.

Pozten gaituk.



Alditxo bat emen igaro ondoren, Gazteizeratu dira Oyarzabal-
dar Joseba ta bere emazte Agirretar Emilia abertzale zintzoak.

–Urtetako bideak ots asko ta aurrerako gutxi. Ez dakigu zer
atarramentu aterako duan.



Igaro diran zortzi edo hamar illabete auetan, izugarritzko aldakuntza bat nabaitzen degu gure txoko maite onetan. Aldakuntza ori, gure aberriarengan edo izkuntzarengan maitetasunik deguentzat guztiz atsegingarri zaigu. Txiki txikitandikan arreta aundia izan det zein tokitan zer izkuntza entzungo, eta esan biarrik ez dago zuzen emongo dedala Zarauzko gertakizunen berri. Lenago uri onetan enparantza nagusira ezkeror erdera gallen edo buru izan da esate baterako, batez ere emakumien artian, baña gaur jaunari eskerak, zorioneko aldakuntza ori iritxi da oneraño. Zarauzko emakumiok esnatu dira, beren ama ezagutu dute, eta ori naikua ez dala, bazkun eder bat antolatu dute, eta bertako bazkideak berreun urrian dira. Ia bada anai-arreba biotzekuak. Ekin gogor, idazle azkarrak zion bezela, maita dezagun geure ele maitagarria dan euskera, bera dalako euskaldunen esia edo muga.

Basarri
(Euzkadi, 1931-12-10)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

ISBN 978-84-7907-704-4



9 788479 077044